anboto

TOKIKOM

2011ko urriaren 21a
10. urtea - 433 zk.

durangaldeko astekaria

www.anboto.org

Herririk Herri | 3
Berbalagun egitasmoaren ikasturte berria aurkeztu dute Durangaldean

Berbaz | 10
Iñaki Iriondo: “Durangaldean dantzariei esker mantendu dira udal banderak”

Kultura | 12
Euskadiko Orkestrak Egigureren obra eskainiko du Hamabostaldiaren baitan

MAÑARIA | 2

9,2 milioiko kalte-ordaina jasoko du Zalloventak

Auzitegi Nagusiak kalte-ordaina ematera zigortu du Jaurlaritza

EAEANk “ondarean eragindako kaltea” argurdiatu du epaian

Zalloventa harrobiaren inguruko auzi ugari izan dira azkeneko urteotan epaitegietan.

ELORRIO | 6

Futbol entrenatzaileak euskaraz trebatzera etorri da Koikili

‘Futbola oinarritik euskaraz’ ekimenean dihardu Durangaldeko hainbat entrenatzailek, Koikili Lertxundiren esanetara. Astelehenean Elizalde futbol zelaian batu ziren saio praktikoa egiteko.

Otxandio | 2
Nagusiendako babeseko etxeak zine zaharrean egin gura dituzte

Mallabia | 3
Gatibu, KOP, Zain eta Esne Beltza urriko jaietan entzungai

Berriz | 6
Berriz-Oiz igoera, Esklerosi Anizkoitz elkartearen alde

Abadiño | 4
Gaztetxearen 13. urteurrena ospatuko dute asteburu honetan

HERRIRIK HERRI >

MAÑARIA

9,2 milioi ordaindu beharko dio Jaurlaritzak Zalloventari

Auzitegi Nagusiak Zalloventari 9,2 milioi euroko kalte-ordaina ordaintzera zigortu du Eusko Jaurlaritza, "ondarean eragindako kalteengatik"

Eusko Jaurlaritzako gobernu batzordeak 9,2 milioi euroko kalte-ordaina ordaindu beharko dio Zalloventa harrobiari, Auzitegi Nagusiak plazaratutako epaiak hala aginduta, "2006tik ondareari eragindako kalteagatik".

Jaurlaritzatik azaldu dutenez, "ondarean eragindako kaltea" 2006an gertatu zen Urkiolako Parke Naturaleko Plana errebisatu zutenean. Aldaketa horrek Zalloventaren ustiapen eremua txikitu zuen, eta harrobiaren mendebaldea ustiatzeko baimenari ezezkoa eman zioten. Auzitegi Nagusiko sententziak azaltzen duenez,"erabaki horregaz enpresari bere ustiapen eskubidearen zati garrantzitsua kendu zitzaion". Epaitegietako ebazpenak dioenez, "ondarean eragindako kaltearen %20" ordaindu beharko dio Jaurlaritzak Zalloventa enpresari, hau da, aurreikusitako irabazien (46.185.765 euro) %20; 9,2 milioi euro zehazki.

EAEANren sententziak dioenez, Parkeko Plana errebisatu zenean sortu zen "kaltea"

Aralarrek Jaurlaritzari eskatu dio Legebiltzarrean "zer gertatu den argitu dezala"

Jaurlaritzak dioenez, "Urkiolako Parkearen sorrerako dekretuak harrobi berriak zabaltzea debekatzen du, lehendik daudenak errespetatzen ditu, eta parkearen erregulazioak eragindako muga eta murrizketek ondare eskubidean eragin ditzaketen kalte-ordainak eskatzeko aukera aitortzen du".

Epaitegietan bide luzea egin du Zalloventa harrobiaren auziak. Eusko Jaurlaritzak 2010eko uztailean Auzitegi Gorenak ekainaren 9an eman zuen epaia betearaziz Zalloventa harrobiari "erauzketa-jarduera berehala bertan behera uzteko" agindu zion. Jaurlaritzak sasoi hartan azaldu zuenez, "baliobakotutako ebazpenaren babespean" jardun zuen enpresak harrobiaren ustiaketan.

Auzitegi Gorenak Mañariko bizilagunen aldeko sententzia ere kaleratu zuen 2004an, Eusko Jaurlaritzak Zalloventari "C" sailean jarduteko baimena baliobakotuta.

"Onartezina"

Dani Maeztu Aralarreko legebiltzarkidearen berbetan, "onartezina da eta ezin da ulertu ondarean eragindako kalte ordaina ordaindu behar izatea herritar guztion diruagaz; are gutxiago, Auzitegi Gorenaren sententzia batek esaten duenean enpresak esplotaziorako eskubiderik ez zuela harrobia ustiatzeko Urkiolako Parke Naturalaren inguruan". Gaineratu duenez, "ardura politikoa argitu beharra dago". Horregatik, Jaurlaritzari eskatu dio Legebiltzarrean argitu dezala auzi honetan zer gertatu den. ■ J.G.



Zalloventa harrobia Mañariko Urkuleta auzoan dago.

Ursula Donearen eguna ospatu dute gaur, egun osoan zehar

Urriaren 21ean, gaur, ospatzen dute Mañarian herriko patroiaren eguna, Ursula Donearen eguna. Eguerdian ekin diote izen bereko jubilatuen elkarteak eta udalak antolaturiko egitarauari. Hildako elkarteko kideen omenezko urteroko meza burutu dute, 13:00etan, eta elkarteak antolaturiko bazkaria egin dute, ohiturari jarraituz, 14:30ean, Astei jatetxean.

Gaztetxoei zuzenduriko ekintzak antolatu ditu gaur arratsalderako udalak, lehenengo biderrez

Herriko gaztetxoenei zuzenduriko ekintzak antolatu ditu udalak gaurko egunerako, lehenengoz. Arratsaldeko 18:00etan hasita, umeendako tailerrak izango dira frontoian. Bitxiak egiten ikasteko aukera izango dute, besteak beste, hurreratzen direnek.

Ursula Donearen urriaren 21eko egunerako hitzorduekin amaitzeko, txokolate jana ere antolatu dute Ursula Donea jubilatuen elkarteak eta Mañariko Udalak, elkarlanean. ■ I.E.

OTXANDIO

Nagusientzat babeseko bizilekuak egin gura dituzte zine zaharrean

Eraikinaren jabetza lortu ondoren, etorkizunean anbulatorioa ere bertan kokatzea da helburua

Udala akordio batera heldu da 'zine zaharra' izenez ezagutzen den eraikinaren jabeekin, eta bere jabetza eskuratu du. Akordioa honako hau da: eraikina dohainik jasotzearen truke eraikin hori hirugarren adineko pertsonen bizitza kalitatea hobetzera bideratzeko konpromisoa hartu du udalak: "Printzipioz, anbulatorio berria eta adinekoentzako babeseko etxebizitzak eraikiko lirateke bertan", udal ordezkariek adierazi dutenez.

Oraindino asmoak errealitate bihurtzeko hainbat pausu falta diren arren, "udala lanean dabil dagoeneko anbulategia zein etxebizitzak ahalik eta arinen errealitate izan daitezen".

Jabeak zirenekiko esker ona

Zine zaharra zen eraikinak hiru jabe zituen: Bittor Kapanaga, Emilio Donado eta Jose Astorkia. Kapanaga joan den uztailean hil zen, baina aurretik sinatu zuen akordioa. Astorkia aspaldi hil zen, eta bere ordezkari moduan Nieves eta Matilde arrebek sinatu dute akordioa udalagaz: "Eskerrak eman nahi dizkiegu Otxandiorekiko erakutsi duten konpromiso sozialarengatik; jarrera berekoiak eta diruzaleak nagusi diren garai hauetan, benetako lezioa eman dute". ■ J.D.

"Proiektuak ahalik eta arinen errealitate bihurtzen" ahaleginduko da udala

Eraikinak hiru jabe zituen, eta hirurek dohaintzan eman diote Otxandioko Udalari

IZURTZA

Herriko taberna errentan emateko lehiaketa irekia

Lehiaketa publikoa deitu dute herriko taberna alokatzeko; bost urterako, luzatzeko aukeragaz

Azken hamar urteetako herriko taberna ustiatzeko kontratua amaituta, lehiaketa publikoa deitu du Eleizalde 20ko lokalaren jabetza daukan udalak, taberna errentan emateko.

Udaleko alderdi bien ordezkariek osatzen duten kontratazio mahaiak erabakiko du zer eskatzaileri eman, luzatu daitezkeen bost urtez, herriko taberna ustiatzeko aukera. Taberna esleitzeko, "ekonomikoki onurazkoen irizten den proposamena" aukeratuko dutela dio udalak kaleratutako baldintza orriak.

Udalaren webgunean batu dute lehiaketa publikoan parte hartu gura duten guztientzako informazioa eskuragai. ■ I.E.

GARAI

Interneteko konexioa zelan ipini aztertzeko proba-epea

Udalak interneteko konexioa egokitu gura du herri osoan, Wi-Fi sistemaren bitartez. Hala ere, azaldu digutenez, hasteko probak egin gura dituzte, eta jendeari aukera eskaini zerbitzua ezagutzeko. Azaroaren 1etik 30era, herriguneko Wi-Firako –udaletxean, kultur etxean eta frontoian hartzen dena– sarrera librea izango da, gako-hitz barik. Zerbitzua herri osora zabaltzean, gune horietako konexio mota bera helduko litzateke, 256 k-koa.

Proba egin eta interesa agertzen dutenek udaletxera jo beharko dute izena emateko. Interesdunen arabera zehaztuko dute zer lekutan ipini konexioa; 7 antena aurreikusi dituzte auzoetan. Alta eman eta ordaindu egin beharko lukete guztiek. ■ M.O.

DURANGALDEA

Ibarretxe kultur etxean aurkeztu dute euskararen erabilera sustatu gura duen egitasmoa. A. B.

Euskara atsegin duten guztiei zabalik dator Berbalagun

Azaroan abiatuko dute Berbalagun Durangaldean, eta parte hartzeko dei berezia egin diete euskaraz ondo moldatzen diren laguntzaile guztiei

Euskara atsegin eta maite duen edonori zabaldu dizkio ateak aurten ere Berbalagunek. *Euskara atsegin dut* lelopean abiatuko dute, aldi berean, "sinple" eta "erakargarria" den egitasmoa. Horretarako esparruak sortuz euskararen erabilera sustatu gura du, eta "gizarte zein jentartearentzat mesedegarri" ez eze "eraginkorra" ere badela diote: "Iaz 200 bat lagunek parte hartu zuten, 30 berba-taldetan. Kopuru polita da, handitu daitekeena".

"Hutsune bat" bete guran sortu zen Elorrion lehenengo Berbalaguna, 2000 urtean; gero etorri ziren Durango eta Berriz (2003), Zaldibar (2008), Abadiño (2009), eta iaz Iurreta. Otxandion ere hasi dira aurten. Astean ordubeteko konpromisoa hartzen dute parte-hartzaileek, euskaraz egiteko. Horrezaz gainera, ekitaldi "xume eta hurbilak" antolatzen dituzte.

200 lagun inguruk parte hartu zuten iazko ikasturtean, 30 berba-taldetan banatuta

Udalek, Amankomunazgoak eta euskalgintzak babesturiko ekimena da Berbalagun

Eskualdeko udal guztiek, Durangaldeko Amankomunazgoak eta euskalgintzak emandako babesari esker hasiko dute azaroan Berbalagun, Durangaldeko AEKk, Durango Udal euskaltegiak, Hizkuntza Eskolak, eta, Eixu! eta Berbaro euskara elkarteek antolatuta.

"Egitasmo finkatuta"

Azken urteotan "nahiko finkatu" den egitasmoa dela diote sustatzaileek, eta parte hartzera deitu dute: "Deialdi berezia egin gura diegu laguntzaile horiei, euskaraz ondo moldatzen diren horiei, eta ikasle-irakasle topikoagaz apurtu. Edozeinek eduki leike-eta laguntzeko aukera. Euskaltzaletasuna edo albokoari lagundu gura izatea aski daiteke motibazioa, norberak dakien lez berba eginez". Informazioa: *durangaldea@aek.org* / 639 400 786 ■ A. Basauri

'Bertsogintza ikastetxeetan' proiektuan 360 ikasle Durangaldean

Urrian ipini dute martxanBizkaiko hainbat ikastetxetan bertsolaritza gaztetxoengana gerturatzeko *Bertsogintza ikastetxeetan* egitasmoa. Ekimena 10 eta 16 urte bitarteko ikasleentzat da, eta Durangaldean, aurten, 360 ikaslek jardungo du egitasmoan; Durango, Abadiño, Iurreta, Berriz eta Zornotzan.

Bizkaiko herri gehienetara zabaldu dute proiektua, eta ikasturte honetan 6.000 ikasle baino gehiagok parte hartzen du. Bertsogintzaren gaineko klaseak hartzeaz gain, Bizkaia Irratian kolaborazioak, bertso kantaldiak eta *Bilbertsoak* izeneko bertso bilduma egiten dute egitasmo horren baitan. ■ A. U.

MALLABIA

Urriko jaietan rock kontzertua kartelburu

Gatibu, KOP, Zain eta Esne Beltza rock taldeek kontzertua eskainiko dute urriaren 29an

Mallabiko urriko jaiak atejoka dauzkagu. Urriaren 28an, 16:30ean, umeentzako tailerra izango da, eskolako frontoian, guraso elkarteak antolatuta. Txupinazoa 18:00etan jaurtiko dute, eta enkarteladan batuko dira. Elizpeko pilota txapelketaren finala 19:00etan jokatuko dute. Tabernetan egingo duten bertso-poteoan Beñat Ugartetxea eta Gorka Imaz izango dira bidelagun. Oilasko pintxoak afaltzeko aukera egongo da 21:30ean, Lumagorriren eskutik–txartela 1,50 euro–, eta erromeriak girotuko du gaua, Trikileku taldeagaz, plazan.

Txupinazoa urriaren 28an jaurtiko dute, 18:00etan udaletxeko balkoitik

Urriaren 29an, arratsaldeko 16:00etan, umeedako olinpiadak prestatuko dituzte. Gauean, berriz, Gatibu, KOP, Zain eta Esne Beltza taldeek kontzertua eskainiko dute.

Urriaren 30ean, meza ondoren, gaztetxoen pilota partidak jokatuko dituzte. Arratsaldean, mus, tute, asto eta briska txapelketak jokatuko dira tabernetan. Aizkolaien erakustaldia eta txokolatada plazan izango dira. ■ J.G.

Berrizko Zain taldea Mallabiko jaietan izango da.C.Martin

Durangaldeko Behargintza
Eskualdeko Garapen Agentzia
Agencia Comarcal de Desarrollo

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila

EKINTZAILEENTZAKO OINARRIZKO TREBAKUNTZA

Enpresa berri bat sortzeko asmoa dutenei zuzendua

HELBURUA: Durangaldean enpresa berriak sortu

EDUKIAK: Negoziazioa, forma juridikoa, eratzeko legezko izapideak, baimenak, lizentziak, finantzaketa eta laguntzak, arriskuak eta ingurumenekoak, zerga-ordainketa

IRAUPENA: 2011ko azaroaren 8tik 18a arte (30 ordu)

ORDUTEGIA: Asteartetik ostiralera 09:30etik 13:15era

TOKIA: Durangaldeko Behargintza

IZENA EMATEKO EPEA: 2011ko azaroaren 4a arte

"Bizkaiko Foru Aldundiko autoenplegua eta enpresen sorrera sustatzeko diru-laguntza eskatzeko balio du"

Durangaldeko Behargintza
Laubideta, 6 Durango tf: 94 623 25 22
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara

www.amankomunazgoa.com

ABADIÑO

Gaztetxeak asteburu honetan ospatuko du 13. urteurrena

Bariku, zapatu eta domekarako antolatu ditu Gazte Asanbladak urteurrena ospatzeko ekintzak

Hiru egunetarako egitaraua antolatu dute asteburu honetarako Zelaietan, Gaztetxearen hamahirugarren urteurrena ospatzeko. Barikuan, zapatuan eta domekan hainbat ekintza burutuko dituzte.

Urriaren 21ean, gaur, arratsaldez burutuko duten kalejira eta dantza emanaldiagaz abiatuko dute urteurrenerako Abadiñoko Gazte Asanbladak atondu duen egitaraua. Luntxa eta 18:30eko umeentzako antzerki emanaldia izango dira, besteak beste, Gaztetxean, eta Humprey bakarlariaren kontzertuak itxiko du barikurako prestatu duten egitaraua.

Luntxa, umeentzako antzerki emanaldia eta Humprey bakarlariaren kontzertua daude aukeran, gaur

Zapatuan ere, urriaren 22an, goizetik zabalduko dute urteurreneko jai-giroa Zelaietako Gaztetxearen inguruan eta herrian zehar. Bizikleta martxa burutuko dute, 11:00etan hasita; herri-bazkarian batuko dira 14:30ean; elektrotxarangaren emanaldiak girotuko du bazkalostea, eta kontzertuak izango dira gauean. Bajo Presión taldeak eta 1980ko hamarkadatik punk doinuak jorratzen jardun duen Vómitok eskainiko dute kontzertua lehenengo, eta erromeriagaz amaituko dute eguna.

Bajo Presión eta Vómito taldeeak eskainiko dute kontzertua zapatuan, eta erromeria izango da gero

Domekan, urriaren 23an, kale antzerkia izango da ikusgai 18:00etan; eta su artifizialak, txokolate jana eta azken traka burutu dituzte, azken urteetan legez, Abadiñoko Gaztetxearen hamahirugarren urteurreneko egitaraua ixteko. ■ I. Esteban

Jende asko batu zen iazko urteurrenean Gaztetxe parean "familia argazkia" egitera. Abagaztetxea

Mariano Raxoi PPko presidenteak Estampaciones Bizkaia bisitatu du

Diego Crespo

PPko ordezkariek Gestamp enpresa bisitatu dute asteon; horien artean alderdi popularreko presidente Mariano Raxoik eta Antonio Basagoitik. Abadiñoko enpresan eskainitako berbaldian alderdi popularreko presidenteak azaldu duenez, "gure politika fiskalaren printzipioa ekintzaileei laguntzea izango da".

ATXONDO

Lan batzordeen egunak zehaztu dituzte udalean

Batzarrak aste honetan hasi dituzte, eta euretan parte hartzeko deia egin diete atxondarrei

Aste honetan hasi dira Atxondon udaleko batzar informatiboak. Rosa Elizburu alkateak gogoratu du batzarrak irekiak direla, eta atxondar gutziak parte hartzera gonbidatu ditu.

Batzar guztiak 19:00etan izango dira. Hirigintza Batzordea, hileko bigarren eguaztenetan batuko da. Ongizate, Berdintasun eta Sozioekonomia Batzordea, bigarren eguenetan; Ogasun, Langile eta Kontu Batzordeak eguazten honetan izan du lehen batzarra, eta hilero hirugarren eguaztenetan izango dituzte batzarrak. Gazteria, Kultura, Hezkuntza, Kirola eta Aisialdi batzordea hileko bigarren astelehenetan batzartuko da, eta Ingurumen Batzordea, berriz, laugarren eguaztenetan. ■ A.U.

Batzar informatiboak hilero egingo dituzte; guztiak 19:00etan hasiko dira, udaletxeko pleno aretoan

Arkitektura teknikaria kontratatu du udalak

Atxondoko Udalak arkitektura teknikaria kontratatu berri du. Azken 30 urteetan Benancio Bilbao aparejadorea ibili da udaleko arkitektura arloko aholkulari beharretan. Jubilatu egin behar da, eta udalak bere ordez arkitektura teknikari bat hartu du, Gespublic S.L. enpresaren bitartez.

Datozen hileotan Benancio Bilbaok Atxondoko Udalean egindako beharraren berri emango dio arkitektura teknikariari. Arkitektura teknikaria bariku goizetan ibiliko da udalean beharrean. ■ A.U.

Sinadurak bildu dituzte udaletxean aurkezteko

Muntsarazko Arlozabal plazako lau etxebizitza-blokeetako bizilagunen sinadurek lagunduta, urriaren 7ko gauerdian euren etxe aldamenean jausi zen garabiaren auziari buruzko kexa udaletxera eraman dute auzotarrek; udalaren partetik erantzunen bat jasotzea da ekimen horrekin lortu gura dutena.

Udaletxean aurkezteko 200 auzotarren sostengua edukitzea izan dute helburu. Atzo udaletxera joan zirenean, "garabia jausi ondoren udalak eduki zuen jarrera salatu eta erantzunen bat eskatu" ziotela gobernu taldeari esan dute bizilagunek.

Kexa formala aurkeztu diote udalari, eta auzoan hainbat etxebizitza eraikitzea aurreikusita dagoenez, aurrerantzean neurriak hartu ditzala eskatu. ■ I.E.

IURRETA

Kofradietan zehar mendi ibilia bizikleta hartuta

XXIII. Kofradietako Martxa eratu dute domekan; 41 kilometroko ibilbidea prestatu dute

Herriko kofradietan zehar mendi bizikleta ibilaldia antolatu dute, domekan, urriaren 23an. Aurten 23. aldia izango duen Kofradietako Martxan parte hartzen dutenek 41 kilometroko ibilbidea egingo dute; aurten, gainera, antolatzaileek zirkuitu berria prestatu dute. Aita San Migel plazatik irtengo dute, domekan, 09:30ean.

Bizkaiko txirrindulari federazioko egutegian sartuta dagoen XXIII. Kofradietako Martxara mendi bizikleta gogoko duten kirolari guztiak daude gonbidatuta; "baita natura maite duten guztiak", azaldu dutenez. Lizentzia duten txirrindulariek 5 euro ordainduko dute; gainerakoek 17 euro. Izen ematea, berriz, bertan egunean egingo dute, 08:30etik aurrera, plazan.

Informazio gehiagorako *www.iurretatxirrindulari.com* webgunean sartu daiteke, edo *iurreta.idazkari@gmail.com* posta elektronikoa erabili. ■ A.B.

DURANGO

Durangoko elkarteak lagun, indarkeria sexista salatzeko

Andereak elkarteak indarkeria sexistaren kontrako kontzentrazio kanpaina berria hasi du. Andereakek eguenero elkarretaratzeak egiten ditu Andra Mariko elizpean, eta hemendik aurrera, astero, Durangoko elkarte bat gonbidatuko dute kontzentrazioan parte hartzera. Elkarretaratzeak 20:00etan izaten dira.

Aste honetako gonbidatua Sanfaustoetako pregoilari eta txupinero izan den Durangoko Orfeoia izan da, eta datorren eguenerako Kriskitin dantza taldea gonbidatu dute. Andereak elkartetik adierazi dutenez, Durangoko elkarteen parte-hartzeagaz eta laguntzagaz agerian utzi gura dute "indarkeria sexista gaitz larria dela gure gizartean". ■ A.U.

Disuasio-aparkalekua zabalduko dute azaroan San Roken, 82 plazagaz

Sanfausto jaietan zabalik egon bada ere, berriro itxiko dute azarora arte, lan batzuk falta direlako

San Roken disuasio-aparkaleku berria egin dute, inguru hartako urbanizazio lanetako proiektuan jasota dagoena jarraituz. Horrela, gaur egun autoak aparkatzeko dagoen arazoari irtenbidea bilatu gura izan diote.

Promotoreek lanak amaitzen dituztenean, aparkaleku berria udalaren jabetzakoa izango da

Guztira, 82 plaza ditu; horietatik 2 mugikortasun murriztua dutenentzako dira. Sanfaustoetan aparkalekua zabalik egon den arren, berriro ere itxi egin dute azarora arte, azkeneko lanak amaitzeko. Promotoreek lanak amaitzean, Udalaren jabetzara pasatuko da aparkalekua.

477 bizilekuko zonaldea

Zonalde hartan 477 etxebizitza egingo dituzte, proiektuan jasotzen denez; horietatik 143 babesekoak izango dira, eta gainerako 334, berriz, libreak. Jose Antonio Olabarri Construcciones S.L. da lanak egiten ari den enpresa, eta hiru milioi euro pasatxoko aurrekontua dute. ■ J.Derteano

Jose Antonio Olabarri Construcciones-ek dihardu lanak egiten.

Aurten mendea egin duela ospatu du ELA sindikatuak Durangon

Sindikatuaren ibilbidea batzen duen erakusketa ikusteko aukera egon da asteon San Agustinen

ELA sindikatuak ehun urte egin ditu 2011n, eta hori ospatzeko sindikatuaren ibilbidea batzen duen erakusketa ibiltaria antolatu dute. Hainbat eskualdetan izan ondoren, asteon Durangoko San Agustin kulturgunean ikusgai egon da erakusketa aste honetan zehar.

Martitzenean, ekitaldi baten bidez, ELAren orain arteko ibilbideari buruzko datuak eta bitxikeriak zein etorkizunari begira dituzten erronkak azaldu zituzten bertaratu zirenen artean. Manu Robles Arangiz Institutua fundazioko presidente den Dani Gomezek eman zuen erakusketari buruzko xehetasunen berri. Sindikatuak urteetan zehar argitaratutako informazio orri informatibo zein satiraz betetakoekin batera, ELAk bere sasoian ekonomatuentzako sortutako txanpona ere ikusgai egon da bertan.

Gomezen ustez, "eskubideen alde borrokatzeko beharrak gaurkotasun osoa du". Izan ere, "patronalak zein botere ekonomikoek beti izan dute eskubideak murrizteko nahia". ELAko ordezkari Joseba Zamakonaren ustez, "hezkuntzan zein osasungintzan murrizketak egin gura dituzte, eta horren kontra egin behar dugu". ■ J.D.

Martitzenean San Agustinen batu ziren ELAko ordezkariak.

Faxismoaren kontra jardun zutenak omenduko dituzte

Karrikak 'Lurra astinduz' lana erakutsiko du gaur 'Agurrik gabeak' ekimenaren barruan

Durango 1936 kultur elkarteak antolatuta, gaur 20:00etan, 'Agurrik gabeak' ekitaldia burutuko dute Santa Ana plazan, faxismoaren kontra borrokatu zuten herritarrak omentzeko helburuagaz.

Aurreskuagaz eta lore eskaintza bategaz hasiko da ekitaldia, eta ondoren Karrika antzerki taldeak *Lurra astinduz* izeneko lana aurkeztuko du. Antzezlan horretan gerraosteko durangarren bizipenak kontatzen dituzte: "Urte haietako sentimendu eta bizipenei argia eta hitza ipintzen saiatu gara amodiozko istorio baten bitartez", adierazi dute antzerki taldeko kideek.

Urte haietako sentimendu eta bizipenei argia ipintzen ahalegindu da Karrika

Lana osatzeko Durango 1936 kultur elkarteak batutako testigantzak hartu dituzte abiapuntu moduan, baina hala ere gaitz egin zaiela diote: "Informazio falta, aurreiritziak eta gaiakdaukan gordintasuna erronka izan dira sormen prozesuan". ■ J.D.

Udala eta Txosna Batzordea gustura daude Sanfaustoekin

Jaietan 63.000 kilo zabor erretiratu dituzte garbitzaileek; iaz baino %14,5 gehiago

Sanfaustoen balorazio ona egin du Aitziber Irigoras alkateak: "Lasaitasuna izan da nagusi eta arazo barik burutu dira ekintzak". Irigorasek eskerrak eman gura izan dizkie jaietan ekintzak antolatzen parte hartu duten elkarteei, eta zabor bilketako datuak eta udaltzaingoan jasotako gorabeherak jakinarazi ditu.

Iaz baino lan handiagoa izan dute aurten Sanfaustoetan kale garbitzaileek. Irigorasek jakinarazi duenez, etxeetako zaborraz gainera, 63.000 kilo zabor –iaz baino % 14,5 gehiago– erretiratu dira kale, txosna, taberna, lorategi eta etxepeetatik. Kaleak garbitzeko 920.000 litro ur erabili dute, iaz baino % 11,5 gehiago, 520 litro desinfektatzailegaz nahastuta.

Udaltzaingoak jasotako gorabehera batzuen berri ere eman du alkateak. Besteak beste, 22 lapurreta salaketa egon dira, 9 salaketa kristalak eta autoetako kristalak apurtzeagatik, eta 9 akta kalean txiza egiteagatik.

"Jende uholdea" txosnetan

Txosna Batzordea Sanfaustoetara gerturatu den jende kopuruagaz "oso pozik" agertu da. Hainbat datu eman dituzte; esaterako, txosnetan 29.000 edalontzi erabilgarri banatu zituztela, iaz baino 4.000 gehiago. Jende gehien bigarren barikuko kontzertuetan izan zela adierazi dute: "Ahaztezina izan zen jende uholdea".

29.000 edalontzi erabilgarri banatu dituzte txosnetan; iaz baino 4.000 gehiago

Nabarmendu dutenez, "aurtengo datuek argi erakusten dute Durangoko Txosnek babes zabala daukatela herrian, eta garrantzitsua dela txosnak Alde Zaharretik hur egotea". ■ A.U.

Jendaurrean berba egiten ikasteko ikastaroa

Ahozko komunikazio gaitasuna hobetzeko ikastaroa hasiko da azaroan Ibaizabal ikastolan. Bost barikutan emango du ikastaroa Manu Marañon komunikazio coach edo trebatzaileak.

Ikastaroaren helburuak honakoak dira, besteak beste: modu konstruktiboan komunikatzea, segurtasuna indartzea, ideiak ordenatzen ikastea, egoera gaitzei aurre egitea eta bileretan, aurkezpenetan, eztabaidetan... interbentzioak hobetzea. Ikastaro praktikoa izango da, batez ere, eta ikasle bakoitzaren beharretara moldatuko dituzte praktikak.

Ibaizabal ikastolan emango dute ikastaroa, azaroaren 4tik abenduaren 2ra

Azaroaren 4tik abenduaren 2ra izango da ikastaroa, 17:00etatik 21:00etara. Izena emateko *m.maranon@euskaltel.net* helbidera idatzi daiteke, edo 650 470 251 telefonora deitu. ■ A.U.

ELORRIO

Praktikak hasita ‘Futbola, oinarritik euskaraz’ zikloan

Elizalde futbol zelaian batu ziren astelehenean entrenatzaileak, Koikili Lertxundiren esanetara

Durangaldeko Amankomunazgoak, Berbarok eta Itzarri enpresak sustatuta, *Futbola, oinarritik euskaraz* egitasmoan parte hartzen dihardu eskualdeko zenbait entrenatzaile gaztek. Helburua futbol taldeetan euskararen erabilera indartzea eta metodologikoki saioak hobetzea da. Hiru fasetan banatu dute ikastaroa: lehenengoa apiriletik ekainerako lan teorikoa izan zen; bigarrena, berriz, oraingo saio praktikoek osatzen dute; hirugarrena jarraipenekoa izango da, 2012ko udaberrian.

Euskararen erabilera indartzea eta metodologikoki saioak hobetzea dute helburu

Zaldua, Iurreta, Berrizko eskola eta kluba, Durangoko Jesuitak ikastetxea, Durangoko Kulturala eta Elorrioko futbol taldeko entrenatzaileek osatzen dute ikasle taldea. Elorrion elkartu ziren astelehenean, bertako entrenatzaile Jon Gurtubairen praktikarako lan-saioa batera ikusi eta behatzeko. Euskararen erabilera beroketan eta lau ariketatan kualifikatu zuten, eta arlo metodologikoan azalpenak eta haurren arreta maila aztertu zituzten, besteak beste. Kokili Lertxundi Itzarri enpresakoa da, eta berak gidatzen du ikastaroa. Orain artekoagaz "pozik" dagoela azaldu zuen: "Teoria beharrezkoa da oinarrizko kontzeptuak euskaraz ikasteko. Emaitzak, edozelan ere, hirugarren fasean ikusiko dira nagusiki", zioen. Hileotako bilakaera baloratuko dute orduan, saioetako nahiz partidetako behaketak egin ondoren.

Ikastaroko parte-hartzaileetako batzuk, Elizalde zelaiko aulkian.

Partaideei galdetuta, "material gehiago" dutela orain eta antolaketa ere "hobetzen saiatzen" direla zioten. Zenbaitek lehendik euskaraz egiten izan du, baina zikloak "motibazioa" eman ei die. Gainera, "berba espezifikoak ikasteak asko laguntzen du", euskara erabili arren sarri gaztelerara jotzen ei zuten-eta. ■ M. Onaindia.

“Berba espezifikoak ikasteak asko laguntzen du”, diote parte-hartzaileek

BERRIZ

Denboraren Bankuaren aldi berria aurkeztu dute

Zerbitzu trukaketara batzeko deialdia egin dute asteon antolatzaileek; 19 kide daude gaur egun

Berrizko Denboraren Bankua ekimenak ikasturte berriari ekin dio, eta, ezagutzera emateko, sabeldantza ikastaroa antolatu zuten eguaztenean, Kultur Etxean.

Euren denbora eskaintzen diote beharrizana daukanari, dakienetik laguntzeko

Ikasturte berrian Zabaltzen-Sartu programako ikasleek ere eskainiko dute zerbitzua

Gaur egun 19 lagunek osatzen dute egitasmoa. Parte-hartzaileek euren denbora eskaintzen diote beharrizana daukan pertsonari, dakienetik laguntzeko. Pastel bat egitea, entxufeak aldatzea, arabiar eta euskarazko klaseak ematea edo erosketak egitea lako zerbitzuak eskaini dituzte, esate baterako, orain arteko trukeetan.

Ikasturte berrian, gainera, antolatzaileek azaldu dute Zabaltzen-Sartu programan parte hartzen duten ikasleek ere zerbitzua eskainiko dutela; iturgintza, elektrizitatea, pintura eta arotzeria, adibidez. ■ M.O.

Menpeko gaixoen zainketarako ikastaroa

Urriaren 26an hasita, eguneroko zainketa lanetarako baliabideak eskainiko dituzte

Ohean daudenean zelan jokatu, postura egokiak lantzen, gaixoa jarrita ipintzen, altxatzen, gurpil aulkia erabiltzen… menpeko gaixoen zainketan egunero egin behar izaten diren lanetarako baliabideak eskainiko ditu Berrizko Udalak, antolatu berri duten ikastaro baten bitartez. Urriaren 26an hasiko da, eta azaroaren 30era bitartean eguaztenero garatuko da Kultur Etxean. Ordu biko iraupena izango dute saioek, 17:30etik 19:30era.

Urriaren 26tik azaroaren 30era bitartean, eguaztenero garatu da Kultur Etxean

Ikastaro praktikoa da udalak antolatu duena. Batez ere, gaixoen mugimendu eta postura aldaketen gaineko ezagutza landuko dute ikastaroan, prentsa oharrean azaldu dutenez.

Izen-ematea

Ikastaroan parte hartzeko inskripzioa doakoa da. Udaleko gizarte zerbitzuen sailean eta 94 682 45 25 telefono zenbakian egin daiteke. ■ M.O.

XII. Berriz-Oiz Igoera egingo dute domeka honetan

Udalak eratuta eta azken urteetan hartutako ohiturari jarraituz, XII. Berriz-Oiz igoera egingo dute domeka honetan. Aisialdiari begirakoa izateaz gainera, ongintzaekitaldia da igoera, bertan inskripzioekin batuko den dirua Bizkaiko Esklerosi Anizkoitz Elkarteari emango diote-eta.

Goizeko 09:00etan ipini dute zita Elizondo plazan, aldapan gora joateko. Izen-ematea irteeran bertan egin daiteke, hiru euroren truke. Antolatzaileek diotenez, gora ailegatuko diren lehenengo 200 mendizaleentzako otartekoa eta edaria prestatuko dituzte. ■ M.O.

Durangaldean labur

Umeen Euskal Jaia domeka honetan

Durangoko Tronperri eta Txoritxu Alai taldeek antolatuta, domekan 45. Umeen Euskal Jaia ospatuko da. 500 ume inguruk parte hartuko du jaialdian. Goizean 11:00etan kalejira egingo dute, eta 17:00etan dantza alardea Ezkurdiko plazan. Euria eginez gero, Azokan izango da alardea.

Egutegi solidarioa kaleratu du Open-ek

Open gimnasioak egutegi solidarioa argitaratu du. 1.500 ale, bost euroko prezioan, salgai egongo dira + Dendak elkarteko komertzioetan. Batutako dirua kantzerraren kontrako elkarte bati emango diote dohaintzan.

San Faustoko eskola eraisten hasi dira

Astelehenean hasi ziren San Fausto auzoko eskolako eraikinak botatzen, eta asteon amaituko dute. Ingurua berrantolatu eta zentro zibikoa eraikiko dute. Eraiste-lanak Construcciones Zabalandi S.L. enpresari esleitu dizkiote, 46.000 eurotan.

ZALDIBAR

Izarren Distira lehiaketaren iazko edizioak arrakasta handia izan zuen Durangaldean.

Izarren Distirako artista gazteek bideoklipa grabatu dute

Zaldibar, Berriz eta Elorrioko bederatzi gaztek parte hartu dute grabazioan

Gazteen sormena bultzatzea helburu duen Izarren Distira ekimenak bideoklipa grabatzeko aukera eskaini du aurten. Joan zen domekan Zaldibar, Berriz eta Elorrioko bederatzi gaztek Revolta Permanent rap taldearen *Kantuka* singlearen bideokliparen grabazioan extra moduan parte hartu zuten. Grabazioak Bizkaiko lau eskualdetako gazteekin egin dituztela jakitera eman du Topaguneak. Beraz, laster ikusiko ditugu Durangalde osoko talentu gazteak ikus-entzunezkoan parte hartzen.

Zaldibarren'Kantuka' singlearen bideoklipa grabatu dute, extra moduan, Durangaldeko gazteek

Erakustaldia

Aste honetan catingak egiten jardun dute Durangaldean. Hautaketa proba epaimahai profesional batek burutu du, gazteei aholkuak eman eta euren ikuskizunak hobetzen laguntzeko.

Urriaren 29an erakustaldia antolatuko dute San Agustin kulturgunean, 19:00etan. Gazte sortzaileak taula gainera igo eta euren talentua ezagutzera emango dute. Aurtengo berrikuntzarik nabarmenena ikus-entzunezko formatuko ikuskizunak aurkeztu daitezkeela izan da. Beraz, gazteek bideoklipak, film laburrak zein bestelako bideoak aurkezteko aukera izango dute.

Erakustaldia urriaren 29an eskainiko dute gazteek, Durangoko San Agustin kulturgunean, 19:00etan

Hainbat sari aurreikusi dituzte antolatzaileek parte-hartzaileendako, bideokamerak, argazki kamerak eta MP5ak. *Izarrendistira.com* webgunean informazio gehiago jasotzeko aukera eskaintzen dute, eta baita Tuenti erabilita ere. ■ J.G.

Auzotarrekin batu da udala aste honetan

Bizilagunen iritziak jaso ondoren, gaiak landu eta beste batzar batean emango dituzte erantzunak

Eitzagako auzotarrekin martitzenean elkartu ziren udal ordezkariak, eta eguaztenean Sallabente eta Olarreagakoekin. Arantza Baigorri alkateak azaldu du "pozik" daudela izandako erantzunagaz.

Eitzagan 13 lagun eta Bildu, EAJ eta PPko odezkariak batu ziren. "20 eskakizun edo arduragaz" irten ei zuten batzarretik. Kotxe eta kamioien abiadura handia, pasabide txarrak, farolak, A8ko zarata, harrobirako bidea, ermitako argi zein teilatua eta ibai zein parkearen garbiketa lako gaiak aztertu zituzten. Sallabenten, "oinarrizko hainbat gauza" landu zituzten: Argiteria, zaborrontziak, aparkaleku falta eta bideen egoera, zuloak daude-eta. Ermuagaz muga egitera, "koordinazio falta" dagoela eta horretan hobetu beharko dutela dio; batzuetan baserria Zaldibarren egon arren, bidea Ermuaren lurretan egon daiteke, gestioak zailduz. ■ M.O.

Ermuagaz "koordinazio falta" dagoela eta horretan hobetu beharko dutela adierazi du Arantza Baigorri alkateak

BERBAZ

“Gutxienez azken 300-400 urtean dantzan erabili direlako iraun dute udal banderek”

‘Mañariko bandera: Bizkaiko zaharrena’ berbaldia eskainiko du Iñaki Iriondok, bihar, Mañariko Udaletxean



Iñaki Iriondo•

- Folklore ikertzailea
- Bilbotarra

Gordeta dagoen udal banderarik zaharrena da 1802ko Mañariko bandera, baina horrek ez du esan gura bandera hori denik sortu zen lehenengoa. Iñaki Irigoien folklore ikerlariak XVI. mendeko dokumentuetan ere topatu du banderen inguruko informazioa. Berbaldia emango du bihar, Europako Ondare Jardunaldien baitan. Mañariko Udaletxean, 17:30ean, hasiko du hitzaldia.

Dantzariekin lotu ditugu beti banderak, baina izenez ‘udal banderak’ dira. Zer jatorri daukate?
Herrien sinbolo moduan asko erabili dira banderak. Herri guztiek erabiltzen izan dituzte. Tartean, gerrarako ere erabiltzen ziren. Karlistaden aurretik, ez zegoen ejerzitorik, eta herri bakoitzak bere konpainia prestatzen zuen; herritarrak soldadu egiten zituzten. Alkatea kapitaina izaten zen, eta urtero arma alardeak egiten zituzten. Orduan herriek banderak izaten zituzten sinbolo moduan. Herri txikienetan ere banderak daude horregatik; eurak ere gerrarako prestatzen zirelako. Historialari batek esaten du 100 pertsonatik gorako herrietan sinbologia hori egon behar izaten zela.

“Aspalditik izan dira banderak herrietako sinbolo; herritarrak gerrarako prestatzen zirenean ere erabiltzen zituzten”

Mañarian 1802ko bandera mantentzen da, Bizkaiko zaharrena.
Gorde direnen artean zaharrena da, bai, baina banderak lehenagotik ere bazeuden. Asko apurtu egin dira, edo desegin egin dira. Durangaldeko bandera zaharrak dantzariek mantendu dituzte, batez ere, *Dantzari dantza*ren sinbologian sartuta. Banderak mantentzea gaitza izan da. Abadiñoko zaharra galdu zen, batzuk diote Berrizko bat, 1.700 ingurukoa, gerra denboran galdu zutela... Apurtu ere egiten dira, eta berriak egiterakoan zaharrak bota.

Dantzariei esker mantendu dira gordeta daudenak, beraz?
Durangaldean bai. Beste herri batzuetan, Antzuolan, esate baterako, bandera ederra ateratzen dute Moroen Jaian, eta esaten dute Erdi Arokoa dela. Baina Bizkaian, eta batez ere Durangaldean, *Dantzari dantza*ren inguruan gorde dira. Durangoko datuetan agertzen denez, dantzariak bandera XVIII. mendean behintzat erabiltzen zuten. Azken 300-400 urte bitartean, garbi erabili dira banderak *Dantzari dantza*n. Eskerrak horri, gorde egin dira herriko bandera zaharrak.

Mañarikoari buruz zer dakigu?
Zoritxarrez, Mañariaren artxiboa oso urria da. XVIII. mendeko datu batzuk badaude, baina gehienak XIX. mendetik aurrerakoak dira. Bandera 1802an egin zen, eta 1804ko akta batean agertzen denez, bandera bat zegoen, eta baita txilinak ere dantzarientzako. Datu bat dagoenean ez du esan gura orduantxe sortu zela; orduan bazegoela baino. Dokumentu zaharretan sarri agertzen da “segun costumbre”, eta horrek esan gura du aspalditik datorren kontua dela.

“XVIII. mendean behintzat dantzariek bandera erabiltzen zutela diote Durangoko datuek”

“Zoritxarrez, Mañariko Udalaren artxiboa oso urria da”

Biharko berbaldian Mañariko jatorrizko dantzen inguruan ere jardungo duzu.
Bai. *Dantzari dantza* da bertakoa, eta Durangaldeko beste herrietan moduan egiten izan da dantza, argi agertzen da dokumentuetan. Mañarian, gainera, txistulariak, urte askoan izan dira Patxikotarrak, Amezuatarrak, Hipolito Amezua, eta bere aita-eta... eta txistulariek ere parte hartzen zuten dantzetan, askotan erakusten.

Durangaldeko dantzen gainean hainbat lan egin duzu. Orain bazabiltza gairen bat sakontzen?
Dantzan ibilitakoa naiz ni, eta dantzatik aparte Euskal Herri guztian ibili naiz dantzak ikusten, eta dokumentu zaharretan arakatu gura izan dut, ikusteko egiten ditugun dantzak ez direla oraingoak; historian oinarrituta argi ikusten da aspalditik datozen dantzak direla. Momentu honetan Durango eta Garaiko *Dantzari dantza*ren inguruko infomrazioa batzen nabil. ■ A.Ugalde

Jatetxe gida



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.

Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.

Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Hotel Lagunetxea

Urkiolako Santutegiaren ondoan
Tel.: 94 465 60 10

Eguneko menua.
Enpresa-bilerak.
Denetariko ospakizunak.
Askariak.

Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.

Indioilar eta barazkidun kus-kusa kurkumarekin

Osagaiak:

-Salda
-3 indioilar izter
-200 gr kipula
-200 gr azenario
-200 gr perretxiko
-200 gr ilar
-1 kg kus-kus
-Olioa
-Gatza

Prestaketa:

Indioilar izterrak 1,5 litrotan egosi, hiru oliba olio koiladaka eta gatzarekin, ordu erdiz, salda eder bat egin arte.
Kipula, azenario, perretxiko eta ilarrak oliba oliotan potxatu.
Aurrez salda egiteko erabili ditugun indiolar izterrei mamia banatu eta zatitu.
Barazkiak eta indioilar okela zatitua saldari gehitu eta 5 minutuz egosi.
Kus-kusa erantsi, sua itzali, lapikoa tapatu eta beste 5 minutuz utzi.
Behin kus-kusa ondo egosita dagoela, olio txorrostada bat gehitu, gatz puntua zuzendu eta Kurkuma koilarakada bi erantsi. Zurezko koilara batekin nahastu.

Zerbitzatu eta jan.

Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Espezialitatea: Txuleta errea.

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Nonbait zeruertzean, begientzat ikusgai!

Eskerrik asko, amalur, zure barnean ernaldutako zintzotasunaz, tontortxoz beteriko lurralde bat erditzea lortu baitzenuen. Eskerrik asko, Europako azken glaziazioa, beste gizaki mota batzuen arteko elkarbizitzari aukera berriak eman baitzenizkion. Eskerrik asko, Kiputz izenez bataiatutako leizea, euskarazko deiadarrek eragindako izuaren ondorioz ihesean zebiltzan hainbat abereren azken gotorleku bilakatu baitzinen. Eskerrik asko, Eneko Aritza, ardiz mozorrotuta zetorren otsoen artaldea harrika akabatzea lortu baitzenuen. Eskerrik asko, Fernando Katolikoa, ilargibeteko iluntasunetan hegazti bihurtutako sorginen hegaldien joanetorriak maiz behatzearen ondorioz, hil aurretik idatzitako ordenuan zure damuen berri adierazteko adorea erakutsi baitzenuen. Eskerrik asko, Katalina Fox, Irun eta Hondarribiko herrietan berriki birmoldatutako gudarosteen lehen aurrekaria zeu izan baitzinen. Eskerrik asko, Bernard Goihenetxe "Matalaz", Euskal Herria noraino hedatzen den adierazteko poesiaz baliatu baitzinen. Eskerrik asko, Manuel Santa Kruz Loidi, lege zaharrak azkeneraino defendatzeko hartutako erabakiaz itsututa jaungoikoaren esanak ere hankartetik igaro baitzenituen. Eskerrik asko, Francisco Franco Bahamonde, zure tamaina txikiak eragindako gutxiagotasun-konplexuaren erantzukizun nagusi euskaldunak egin baitzenituen. Eskerrik asko, Kandido Saseta, borroka zelaian anai-arreben aurrean erakutsitako ausardiarekin, sorterria itzultzeko egin beharreko azken bidaiarako baliabideak aurrez jarri baitzenituen. Eskerrik asko, Juan Carlos I.a, zure izendapenak ahalbidetutako amnistia orokorreko legeak Txiki eta Otaegi bezalako borrokalarien gorputzak zulatu zituzten borreroei ere zorrak kitatu baitzizkien. Eta amaitzeko, eskerrik asko Hispanitate Eguna, euskal herritarren askatasun egarriak asetzeko bide horretan zuk ere gogobetez lagundu baitzenuen.

Aritz Soloeta Garmendia

Sarri-Sarri, zirri-zirri, gorri-gorri

Joseba Sarrionandiak, *Moroak gara behelaino artean?* liburuagaz, Premio Euskadi delako saria irabazi dau, eta Gobernutik dirua gorde deutse bere egoera legeztatu bitartean. Hara, gure mutila, berriro be berbagai! Bera den isilagaz, zelan lortu leiteken hainbeste oihartzun be! "Lasai Joseba, banku barrian gordeko deutsue dirua, eta errerdituakaz eta KPIa kontuan hartuta bueltatuko igual". Ez da bakarra izango dirurik gabe gelditzen dena, agintarien gustuko ideologia ez izateagaitik. Ez daigun ahaztu, sigla desberdinen pean baina Ezker Abertzaleari ere hainbat diru kendu jakola hauteskunde zenbaitetan lorturiko aulkiengatik, tokamenezkoa izanik. Gobernutik eta udaletatik. Nik dakidala ezer ez jako bueltatu.

Sarri esan digute gauzak ez direla nahastu behar. Kultura, kultura dela, kirola kirola baino ez, eta hizkuntza, komunikatzeko era bat dela. Bai, hala beharko leuke beharbada, baina gure kasuan ez da horrela. Gure kasuan dena bihurtzen jaku politikagai. Hainbestean gagoz geure herriarekin lotuta, ze egiten duguna egiten dogula beti horren erreferentzia bihurtzen dogu edo bihurtzen gaitue. Ala koloreak dauka errua? Gorriegiak gara agian, eta norbaitzuei begian min egiten deutsegu? Josebaren liburuak saria irabazi dau, nire ustez merezita. Baina idazlea gorriegia da Gobernuarentzat. Kirolean Euskal Herriko Selekzioa nahi dogu eukitea. Baina horren aldeko borrokan gorriegiak dabilz, antza. Horiak, Euskadi Komunitateaz konforme dagoz. Iurretan euskaraz bizi gura dozula? Ba ezin, ze korreosetako langileak ez daki euskerarik eta jakin gura be ez. Eta Osakidetzako harrerakoak be ez. Norbere herrian *bitxorraroa* sentitu beharra ez da gozoa. Eta Administrazioak, jakin arren, zer egiten dau horrlakoetan? Ezer ez. Berak egindako legea ere ez dau betetan. Interesatzen jakonean bai, interesatzen ez jakonean ez. Leandro Jaioenak: "Taluek eta legiek, eiten dien modukuek"

Josebaren liburua oso interesgarria dela iruditzen jat. Eta durangarrei batez be gomendatzen deutset irakurtzeko, dakarzen Durangaldeko aipamen pilloagaitik be.

Gainera, zer kontxo!, kontrakanpaina bat antolatu daigun, Sarrionandiaren liburu saritua erosiz. Gobernuak ez deutsala dirurik emon gura? Emon deiola editorialak. Opari bat egiteko be ederra da. Eta paper gorriz batu, gainera.

Kristina Mardaras



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Sei hankako mahaia

Aitziber **Irigoras**
EAJ

Jaietan lan

Horixe izan leiteke Sanfaustoetan hainbat eta hainbat elkarte durangarren leloa. Urte batzuk izango dira Bilboko Konpartsaren batek *Jaietan jai* izeneko pegatinak sortu ebazala. Eta egia da, jaiak aproposak dira urte osoan zehar garatzen dogun bizimoduari etendura-haginkada emoteko eta, gure ardura baltzak egun batzuetan zehar poltsikoan sarturik, ekitaldietan parte hartzeko. Baina hori zorionez gauzatzeko, ezinbestekoa da pertsona batzuek eta elkarte batzuek euren lana buru-belarri egitea Durangoren eta durangarren mesedetarako. Badagoz, euren lan etenbakoa Jaietako Batzordean jartzen daben pertsonak. Eta badagoz, baita be, jai ospakizunak irudikatu, antolatu, (arrakastaz) gauzatu eta, eskuzabaltasunez, besteen ekimenetan parte hartzen daben elkarteak be.

Mota guztietako elkarteak doguz gure herrian, gurea elkartez bilbaturiko gizartea baita. Gehienak (guztiak ez badira) euren lana egunean-egunean garatzen dabe, egunerokotasunaren xumetasunean, ilusioz beterik. Askok eta askok areto txiki bat baino ez daukie euren egoitza finkatzeko eta durangarren onurarako egingo dabezan ekitaldiak prestatzeko. Irabazi asmo barik, boluntarioen lan eskerga erabilita, diru-laguntza publikoekin mirariak eginez eta, udal lokal urrietan, askoz gehiago eskatu barik, emaitza ikaragarriak lortuz, elkarte durangarrak gure Jaietako gatza eta piperra izan dira!

Kritikak entzungo dozuez: "hau txarto egin dozue", "bestea beste era batera egin behar zan". Aurpegi gogorreko kritikari profesionalak dira; ez kezkatu. Norberak ez dabenean ezer egiten zorrotzago aztertzen ditu ingurukoen lanak... ez daukalako beste zereginik edota beste interes batzuk babesten dabezalako! Kontrara, ohikotasunaren gerra isilean borrokatzen dozuenok nahikoa lan daukazue inoren berba hutsei kasu egiteko. Doaz, bada, lerro hauekaz, gure esker onak eta, zinez, nire mirespena, eta jaso egizuez, otoi, zuen elkartekideen ordezkari legez.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria
Anboto komunikabideak Elkartea
2011ko urriaren 21a - 10. urtea - 433 zk.

Laguntzailea: BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia

Eta honako udal guztiak: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Manaria, Otxandio, Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarrieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

KULTURA>

LITERATURA> ELKARRIZKETA

“Orain lau urte idatzi nuen nobela; gordeta eduki dut”

Euskara eta literatura irakasten ditu **Gaizka Zabarte** zaldibartarrak, eta idatzi egiten du. Eguenean aurkeztu zuen, Donostian, Susa argitaletxeagaz plazaratu duen ***Zaharrak ez zuen hil nahi*** nobela.



Aurretik idazten eta argitaratzen jardundakoa zara?
Argitaratu, aldizkari batzuetan egin nuen gaztetan; 1980ko hamarkadako *Ttu-ttua* aldizkarian ipuinak argitaratu nituen. Horretaz gainera, ez besterik. Laurogeiko hamarkadan hainbat literatur aldizkari kaleratzen ziren, eta, irakurtzeko baino gehiago, idazteko ohitura oso zabaldua zegoen.

Eta argitaratu ez arren idazten, noiztik?
Idatzi, gehiago edo gutxiago, baina aspalditik egin dut. Tarteka, boladaka, batzuetan, idatzi izan dut. Beste kontu bat, oso diferentea, argitaratzea da.

Nobela honen idazketa eta argitalpena zelako prozesuak izan dira?
Nobela hau orain lau urte inguru idatzi nuen, eta gordeta eduki nuen denbora batez. Une batean lana Susa argitaletxera bidaltzea bururatu zitzaidan, eta argitaletxeak publikatzea merezi duela iritzi zion. Udaberritik udara, ukitu batzuk eman eta lana borobiltzen jardun dut.

Hasierako zure erabakia, beraz, idatzitakoa gordetzea izan zen.
Bai, idazten den guztia ez baita argitaratzen. Idazten duten guztiek ere ez dute argitaratzen. Beste erabaki bat da hori. Nobela ez neukan ahaztuta, eta momentu batean erabaki nuen partekatzea; pare bat lagunek irakurri zuten lehenengo. Gero, nire gustuko argitaletxe batera bidaltzea pentsatu nuen, euren iritzia jakiteko asmoagaz. Behin partekatzen hasita, lagunekin legez, edonorekin partekatzea erabaki dut.

Istorioa ezagun egiten zaizkigun lekuetan dago kokatua...
Mahatserrian mugitzen dira pertsonaiak; lehengo Bilboko Begoñako Errepublikan. Trama gaur egunean eta orain hamarkada batzuk kokatuta dago, eta Josu Gezeta izenekoa da narratzailea. Mahatserria, Bilbo eta Durangon dira lokalizazioak, nahiz eta istorioa edonon eta edonoiz gertatu zitekeen. Heriotza, maitasuna, norbere buruaren ezezagutza... gai unibertsalak dira.

Josu protagonista, zure moduan, irakaslea da, eta idatzi egiten du.
Beste edozer izan zitekeen, baina irakaslea da, bai. Josu Gezeta da narratzailea, denok arruntak garen neurrian, tipo arrunta dena. Ehorzlea agertzen da bere bizitzako une batean, eta horrek istorio bat jartzen du martxan. Gezetaren bizitza hortik aurrera ez da hain arrunta izango; ordura arte beretzat fikziozkoak ziren errealitate batzuekin egingo du topo: desagertzen diren pertsonen gaiagaz, esaterako. Ildo horretatik doa liburuaren ardatzetako bat.

> “Ordura arte beretzat fikziozkoak ziren errealitate batzuekin egingo du Josu Gezeta narratzaileak topo”

Intriga mantentzen du narrazioak.
Pozten naiz hori horrela bada. Ehorzlearen bitartez aurkitzen ditu misterio aire batek inguratzen dituen aspaldiko gertaera batzuk narratzaileak. Horiek argitzeko asmoz ekiten dio, baina istorioak aurrera egin ahala, bere ikuspegia ere aldatu egiten da. Istorioan, traman, aurrera egin ahala, inkognita gehiago sortzen dira, erantzunak aurkitu ahala, zalantza eta inkognita gehiago sortzen dira… Hori gertatzen da nobela bat idazterakoan, eta hori gertatzen zaio narratzaileari istorio honetan ere.

Giro ilun samarra, beltza, dago liburuaren hasierako orrietan.
Bai, heriotza agertzen da, esaterako... Baina, aldi berean, gero, heriotza ez da errealа. Josu Gezeta protagonistak deskubritzen dituenak, gauza ilunak edo luzaroan ezkutatuta egondakoak dira. Pertsona guztiongan eta pertsonen arteko hartu-eman guztietan dago alde ilun bat. Alde ilun eta ezkutuko hori barik, bestalde, ez legoke ez zinemarik, ez literaturarik…

Istorioa zelan amaituko zen hasieratik eduki duzu pentsatuta?
Istorioa bera argi eduki dut buruan: hori zelan kontatzen duzun, eta zenbat elementu jartzen dituzun mahai gainean, horren arabera argiagoa edo ilunagoa izango da istorioa. Bizitzan gutxitan heltzen zara behin betiko ondorioetara; nobelan horrela gertatzen zaio protagonistari ere: ikasten du zalantza horiekin bizi izaten. ■ I.Esteban

“Unai Iturriagak egindako azala da nobelaren sinopsirik onena”

Nobelaren trama ondoen laburbiltzen duena Unai Iturriaga durangarrak egindako azala dela azpimarratu du Zabarte zaldibartarrak: “Unairen azala da liburuaren sinopsirik onena”, esan digu. Hilerri bateko zuri-beltzeko irudi batekin osaturikoa da azala, eta hainbat aztarna ematen ei ditu tramaren misterioez.

Tramari eta estiloari buruz, “nobela on batek, interesa sortzen duen trama bat eta tramaren kontakizuna ederra egingo duen estilo bat eduki behar ditu; biak behar ditu”, nabarmendu du Zabartek. Irakurleak gustuko izan dezan, gauza biak izan behar ditu, indartsu, erakargarri.

“Literaturaren historian tramak errepikatu egiten dira”, dio Zabartek: “Bizitzan inportanteak diren gauzetaz idatzi izan da beti; pertsonen arteko harremanez, norbere burua ezagutzeaz, sentimenduez…”

Orain lau urte idatzi eta gorde zuenean, inork ez zekiela hor istorio bat zegoela idatzita diosku egileak. Bere berbetan, baina, “behin argitaratzeko erabakia hartuta”, ahal den irakurle gehien batzea du helburu, eta horregatik erabaki du Creative Commons lizentziapean argitaratzea. Susa argitaletxearen webgunean, liburuaren hamazazpi kapituluak osorik ipini ditu eskuratu eta irakurri gura dituenarentzat.

Desagertzeari buruz

Lehenengo liburua kaleratuta, eskuartean beste zer proiektu darabilen galdetu diogu Gaizka Zabarteri. “Honekin batera idazten hasitako beste istorio bat ere hor daukat; hezurdura guztia osatua daukana”, erantzun digu, “baina horrek ez du esan nahi ez amaituko dudanik ez argitaratuko dudanik ere…”, zehaztu du. Nobela honetan aipatzen diren adarretako bati, harietako bati, egiten dio idazlan berri horretan erreferentzia. Desagertzearen ingurukoa da idazlan bietan gaia.

MUSIKA> EMANALDIA

Ehundik gora artista hamazazpigarren txistu kontzertuan

Durangoko Sanfausto jaien egitarauaren barruan, urriaren 22an eskainiko du Silboberri txistu elkarteak emanaldia

Durangoko Sanfausto jaien egitarauaren barruan, urriaren 22rako antolatu du Silboberri txistu elkarteak 150 parte-hartzaile batuko dituen kontzertua. XVII. edizioa izango da zapatuan, 20:00etan, Landako Guneak hartuko duena.

Durangaldeko eta Euskal Herriko hainbat musikari batuko dira urriaren 22ko hitzorduan: Durangoko Bogoroditsie abesbatzak, Inmaculada Martinez sopranoak, Oreretako dantza taldeak, dantza garaikidean diharduen Tantai taldeak, metalen boskote batek eta perkusio-, baxu-, eskusoinu- eta pandero-jotzaileek joko dute hitzordu horretan.

> Obra berriak izango dira kontzertuan eskainiko dituztenetariko lau

Hamabi obra eskainiko dituzte zapatuko kontzertuan; estreinaldiak izango dira horietako lau, eta harmonizazio berriak ere interpretatuko dituzte. Musika emanaldiekin uztartuta, LandakoGunean ikusgai izango dena, eszenaratze eta koreografia lana ere bada.

David Azurza, Hilario Extremiana, Ruper Lekue, Jabier Ituarte, Jon Etxeandia, Karlos Sanchez Ekiza, Tomás Aragües, Isidro Ansorena, Pepe Blasco, Joaquin Lacumberri eta Jose Luis Franzesenaren lanak jasotzen ditu kontzertuko programak, eta Jabier Ituartek burutuko du zuzendari lana. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Libe Mimenza
Kazetaria

24 ordu digitalean

Hartu agenda eta apuntatu ondo: azaroaren 11n, arratsaldeko 17:00etan hasiko da springa Arriola Antzokian, 24 ordu digitalean. Kamera, tripodea, argiak, bateria... bateriak kargatu ditugu? Kaka! Beti berdin, "erratz txarraz, bazterrak narrats".

Baina handiak txikia ahantzarazten du. Ireki gutunazala, zeintzuk dira aurtengo baldintzak? Hara! Gaia nahiko zabala bada, ez dago gaizki. Ezinbestean eszenaratu beharreko objektua nola hala sartu ohi dugu, baina izango al da aurtengoa aproposa sortzeke daukagun istorio horretan txertatzeko? "Nor bere zoroak bizi du", beraz, batek jakin antolatzaileek seigarren edizio honetarako eskainiko diguten esaera zaharra zein den. Ahal bada gogoan hartu, "norberarentzat gure ez dana ez zaio inori emoten".

Horiexek dira 24 ordu digitalean lehiaketaren osagaiak: gai bat, objektu bat, esaera zahar bat eta 24 ordu besterik ez film laburra sortzeko.

Tartean, profesionalak eta afizionatuak, bereizketarik gabe. Iniziatiba duen oro bertaratzen da, gustuko lekuan aldaparik ez. Eta "asto batek bik baino gehiago dakienez, dekonak beti erakusten dau" azkenean.

24 orduak pasatakoan, antolatzaileen eta epaimahaikideen txanda iristen da. Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak batu, ikusi, epaitu eta gaueko emanaldirako prestatu.

Emanaldia da jaso dezakegun saririk onena. Ez dago sortutako lana taldekideekin batera zineko pantaila handian ikustea bezalakorik!

Bideogintza atsegin baduzu hauxe da zure aukera, oraindik garaiz zabiltza lagunak bilatu eta izena emateko. Hori bai, kableak ahaztu ditzakezu, baina... sartu irudimena motxilan.

MUSIKA> ZIKLOA

Euskadiko Orkestrak zabalduko du zikloa, Egigurenen obragaz

Urrian eta azaroan, hiru musika klasiko emanaldi Durangoko Musika Hamabostaldian

Orain hogeita bi urte martxan ipini zutenean legez, Durangon musika klasikoa entzuteko aukera zabaltzeko asmoz aurkeztu dute Musika Hamabostaldia Bartolome Ertzilla musika eskolak eta udalak. Eguaztean, musika eskolan egin zuten urrian eta azaroan hiru musika emanaldi dakartzan zikloaren aurkezpena Aitziber Irigoras alkateak, Alfredo Sanz musika eskolako zuzendariak, Xabier Arana musikazaleak eta emanaldietako bateko protagonista den Jesus Egiguren konposatzaileak.

> Egiguren durangarraren, Mendelsson-en eta Arriagaren lanak

> Otsailean estreinaturikoa da Jesus Egigurenen 'Kindly symphony' hau

Egigurenek Euskadiko Orkestraren enkarguz sortu, eta otsailean estreinatu zuten *Kindly Symphony* eskainiko du Euskadiko Orkestra Sinfonikoak urriaren 31n. Musikariak aurkezpenean azaldu zuenez, "hogei minutu inguruko iraupena daukan sinfonia oso entzungarria, atsegina da Durangon entzungai izango dena".

Bilbon aurkeztu zutenean entzunda, "zinemako musika konposizioen antza" daukan lana dela azpimarratu du alkateak. Urriaren 31n Andra Mariko eliza izango dute EOS-ekoek oholtza.

> Musika klasikoaren eskaintza ahalik eta zabalena prestatu dute

Musika eskolako Alfredo Sanz zuzendariak azaldu duenez, edizio guztietan moduan, musika klasikoaren ahalik eta aukera zabalena eskaintzeko, "Egigurenen aipaturiko sinfonia, ganberako musika eta abesbatza" ekarriko ditu Hamabostaldiak Durangora.

Bigarren hitzorduan, Alemaniako ganbera hirukote baten musika eskainiko die musikazaleei Durangoko ziklo honek; Sturtgard-eko goi mailako musika eskolan irakasle diren biola-, flauta- eta gitarra klasiko-jotzaileak gonbidatu dituzte azaroaren 12rako.

Hamabostaldiaren eskaintza borobiltzeko, "Durangon zaletu asko dauzkan zarzuela" ere ekarriko dute, azaroaren 27an. Adituek zarzuelen artean onenetarikotzat jotzen duten *La revoltosa* ikusteko aukera San Agustin kulturgunean eskainiko dute. ■ I.E.

EGITARAUA

Urriak 31, 21:00
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Arriaga, Mendelsson eta Jesus Egigurenen obrak eskainiz, Andra Maria basilikan (sarrera doan)

Azaroak 12, 20:00
Trio Gremonda taldearen ganbera musika emanaldia, San Frantzisko elizan (sarrera doan)

Azaroak 27, 18:00
Sasibil elkarteak eskainita, ***La Revoltosa* zarzuela**, San Agustin kulturgunean (sarrera 12 euroan)

URTEURRENA> URRIAREN 28an

Plateruek "umorez eta lagun artean" ospatuko dute zazpigarren urteurrena

Urriaren 28an ospatuko dute zabaldu zuteneko zazpigarren urteurreneko jaia Durangoko Platerueneanean; "Bertsoen, musikaren eta dantzaren inguruan" batuko dira. Erika Uranga kultur eragile berria aurkeztuko dute

EGITARAUA

Bertsolariak
Miren Amuriza, Eneko Abasolo "Abarkas", eta Jon Maia

Musikariak
Etxe eta Katamalo taldeko zenbait lagun

Kantulagun
Azaroan abiatuko duten Kantulagun zikloaren dinamizatzaileekin saioa

Dantzariak, luntxa...

Erika Uranga Plateruenekoo kultur eragile berria, eta Beñat Gaztelu-Urrutia kudeatzailea, Plateruenekoo bulegoan, lanean.

Bazkideei, militanteei zein Plateruenaren erabiltzaile guztiei egin diete urriaren 28an burutuko duten 7. urteurreneko jaira gerturatzeko gonbita. "Asmoa, arratsalde lasai eta gozo bat igarotzea da", Beñat Gaztelu-Urrutia Plateruenekoo kudeatzailearen berbetan: "Jan-edanean eta elkarrekin egonez gozatuz".

Euskal kulturgintzaren Durangoko topalekua zabaldu zuteneko zazpigarren urteurrenerako ailegatu da Erika Uranga gaztea Plateruenera, zabaldu zutenetik orain arte antzokiko programatzaile izan den Asier Iturriagaren ordezko izango dena.

Asteon Plateruenekoo bulegoetan hartu gaituzte Erika kultur eragile berriak eta Beñat Gaztelu-Urrutia Plateruenekoo kudeatzaileak, eta urriaren 28ko urteurrenerako prestatu duten egitarauaz, zazpi urteoi begiratuta egiten duten balantzeaz, epe luzerako erronkez eta beste hainbat konturi buruz egin dute berba.

Plateruenaren orain zazpi urteko hasierari begira, "oso modu intuitiboan hasi ginen lan egiten", dio Beñatek: "Egitaraua topera betetzen genuen, momentu batzuetan lar hausnartu barik". Azken hiru urteotatik hona, baina, "egitarau propioaren, *Zilarrezko*en lerroa egonkortzea da lortu duguna: euskarazko herri kulturgintza sustatzeko hainbat hitzordu finkatu ditugu". Orain arteko fruiturik onenak DF bertsozale eskola, Kantulagun, Kantuaren Kantoia, AIKOren dantza saioak, eta Zilar Astea dira.

> Urriaren 28an, 20:30ean, izango da Plateruenekoo 7. urteurreneko jaia

> "Egitarau propioa egonkortzea lortu dugu azken hiru urteotan"

Erika Uranga kultur eragile berriak ere "herritarren parte-hartze zuzena sustatzen duten ekitaldi horiek indartu behar" direla uste du. Jendea ekimen horietara erakartzea ikusten du 28 urteko zornotzarrak erronka nagusien artean; "horretan saiatuko naiz", esan digu, ikasketei dagokienez, historialaria den Plateruenekoo kultur eragile berriak.

Gaztelu-Urrutiak azaldu digunez, "lanposturako hautaketan, kontzertuak programatzera mugatuko den musikazale bat baino gehitxoago gura genuen: formakuntzaz gainera, herri mugimenduetan parte hartua, iniziatibaduna eta ekintzailea izatea baloratu dugu; eta gaztetasuna ere bai".

> "Eragile formatua, iniziatiba duena eta ekintzailea gura genuen"

"Sona handiko ikuskizunekin itsutu barik, herritarrengandik gertukoen den mailan dihardugu konbentzimentu osoz lanean", dio Beñatek: "Kultura kontsumitzeak indibidualki aberasten du bat, baina elkarlanean eta parte hartzean oinarritutako ekimenek kolektiboki aberasten gaituzte". ■ I.E.

Liburu eta Disko azokaren egunetarako egitarauagaz

Abenduko Durangoko Liburu eta Disko Azoka izaten da Plateruenekoo egitarauan, proportzioan, eskaintza ugarieneko sasoia. Aurten, Gerediaga elkarteak antolatu duen 46. edizioan ere, abenduaren hasieran Plateruena izango du musikari askok euren lanak Euskal Herri osora zabaltzeko oholtza.

Urte guztian zehar dute Plateruenean "ahal den neurrian, euskal ekoipen guztiak eta atzerrikoak ere hartzeko helburua", eta Durangoko Liburu eta Disko Azokako egunetarako ere hainbat disko berriren aurkezpenak dauzkate lotuta: abenduaren 2an hasita, besteak beste, Governors, Lisabo, Kerobia, Ze Esatek, Esne Beltza eta Etxek zuzenean joko dituzte disko berrietan bildu dituzten kantak.

Abendua ailegatu orduko, baina, urriko eta azaroko egitaraua ere prest daukate Plateruenean: hardcorea egiten hamarkadak daramatzan AEBetako Sick Of It All taldea dator, esaterako, Plateruenera gaur.

Proiektuaren zazpi urteko ibilbidea ospatzeko eta "jendeari poztasuna helarazteko", lagunek inguratuta igaroko dute urriaren 28a, Plateruenean.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net
kantulagun
7. URTEURRENA
URRIAK 27 20:00etan
KANTULAGUN
KANTUZALEEN TXOKOA
Urte osoko izen ematea: 15 euro.
URRIAK 28 20:30ean
7. URTEURREN EKITALDIA
Sarrera doan.
URRIAK 29 17:00etan
AIKO ERROMERIA
DANTZALDI IBILTARIA.Sarrera doan.
Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

SÓLALA
Pez en raya
Urriak 22 • 20:00
BLUE BIRD
Anita Maravillas
Urriak 23 • 18:00
San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ liburu-denda
artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

anboto astekariak Eusko Labelekin batera saski bat zozketatuko du bi hilean behin

ZOZKETA

Eusko Labeleko produktuekin egindako zure errezeta gozoenak bialdu

BIDALI ERREZETAK:
astekaria@anboto.org edo Anboto Astekaria - Bixente Kapanaga, 9 • 48215 Iurreta

* Bialdutako errezeta guztiek izango dute opari bat
* Hurrengo zozketa azaroan: bialdu zure errezetak urriaren 28a baino lehen
* Euskaraz idatzitako errezetak bakarrik onartuko ditugu

KIROLAK >

“Ezin nuen sinestu Orbearen interesa; ametsa egi bihurtu zait”

Afizionatu mailara heldu arte Elorriaga taldean ibili ondoren, azken hiru urteetan Seguros Bilbao taldean aritu da.

Illart Zuazubiskar kontinental mailako Orbea taldean lehiatuko da 2012an. Euskaltel-Euskadira heltzeko azken aurreko urratsa da Orbea. Aurpegia ematen eta taldeari laguntzen ahaleginduko dela dio: “Pelotoiaren erdian gaitza da goikoen arreta erakartzea”

DATUAK

Izena: Illart Zuazubiskar
Adina: 21 urte
Herria: Abadiño

IBILBIDEA

- **Elorriaga** taldea: 12 urtetik 18 urtera
- **Seguros Bilbao** taldea: 18 urtetik 21 urtera
- **Orbea** taldea: Datorren denboraldia

Noiz deitu zizun Orbeak probak egiteko?
Uztailean taldeko zuzendari Santi Barrancok deitu zidan, esfortzu proba bat egiteko. Urtebeterako kontratua abuztuan sinatu genuen.

Gogoratzeko moduko eguna...
Lehenengotan ezin nuen sinestu. Betiko amets bat egia bihurtu zitzaidala sentitu nuen.

Euskaltel-Euskadiren bigarren taldea da Orbea. Horrek gehiago motibatzen du txirrindularia?
Bai. Ondo lan eginez gero aukera hori etorri daitekeela badakigu. Hori sumatzen da. Horrelako taldeek badituzte berezitasunak. Garrantzitsuena taldeari laguntzea da, baina interes propioak ere badaude; denok postu onak lortu gura ditugu lasterketetan.

Taldekide berriekin zelan aurkitu zara?
Oso gustura. Bost txirrindulari berriak dira eta denak ezagutzen ditut, bi-hiru urtean lasterketa askotan topo egin dugulako. Egia esanda, besteekin ere jardun izan dut eta denok gara ezagunak.

Iaz zelan ibili zinen?
Denboraldi hasieran ondo ibili nintzen, udaberrian alergiak erasan zidan arte. Beheraldi horretatik errekuperatu ondoren, berriro maila onean jardun nuela uste dut.

Alergiak asko eragiten du errendimenduan?
Euria egin dezan errezatzen egoten naiz sarritan. Dena dela, gaitza da ekiditea; udaberrian eguraldi txarra eginda libratzen tan. Aurreko denboraldietan garaipenak txirrindulari gutxiren artean lortzen zituzten.

> *“Elikadura zaindu eta gorputza finduta, inoizko ondoen ibili naiz mendian”*

> *“Euskaltelek urte ona osatu du; ziklista askoren artean banatu dituzte garaipenak”*

Zeintzuk dira zure dohainak eta zertan hobetu behar duzu?
Ihesaldiak sortu daitezkeen ibilbide gorabeheratsuetan ibiltzen naiz ondoen. Igoeretan, aldiz, gehiago eman dezakedala sentitzen dut. Elikadura zainduz gorputza findu zait, eta asko igartzen dut. Mendian aurten inoizko sentzazio onenak izan ditut. Erlojupekoa ere gustatzen zait.

Erlojupekoetan eta sprintean espezialista gutxi dago Euskal Herrian.
Kadeteetatik aurrera lasterketa denetan mendateak daude, eta gehienetan taldetxoak ihes eginda heltzen dira; ia inoiz ez sprintean. Erlojupekoari dagokionez, afizionatuetan Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketak bakarrik daude. Horrela gaitza da. Ni pistan ere ibiltzen naiz, eta horrek laguntzen dit.

Zer moduz pistan?
Kadeteetatik nabil. Euskal Selekzioagaz Espainiako Txapelketan parte hartu dut hainbat urtetan. Ondo defendatzen naiz, eta gustura parte hatzen dut.

Hainbat txrrindularik elkarrekin entrenatzen duzue sarritan. Zer gomendio eman dizkizute?
Ruben Perez, Pedro Horrillo, Koldo Fernandez de Larrea, Egoitz Murgoitio... asko batzen gara. Ez ezkutatzeko esaten didate, pelotoi erdian gaitza dela goikoen arreta erakartzea; lasterketaren bat irabazi badezaket, aurrera egiteko eta beti adi egoteko; ezin badut, taldeari laguntzeko eta borondatez jokatzeko. Sekula ez dut arazorik izan taldearentzat lan egiteko. Norberak bere tokia bilatzen saiatu behar du. Mendian gora onenak badoaz eta taldekide batek aukera handiagoa badu, berarentzat lan egingo dut inongo arazo barik. ■ J.Derteano

Jose Antonio Ardanza Euskaltel-eko presidenteak aipatu izan du ez dakiela txirrindulari taldea finantzatzeko moduan egongo diren 2013tik aurrera.
Entzun dut, baina ez dugu komentatu gure artean. Onena horretan ez pentsatzea da; guk gurean kontzentratu behar dugu, ahalik eta errendimendurik onena eskaini behar dugu.

Zer iruditu zaizu Euskaltel-Euskadiren denboraldia?
Nire ustez, denboraldi ona izan da, garaipenak txirrindulari askoren artean banatuta egon direlako eta, gainera, hiru handietan lasterketak irabaztea lortu dutelako; Giro, Tour eta Vuelbazara, udan egokituko zaizu. Eragiten duen? Batzuetan bai. Esaterako, aurten Laukizko lasterketa batean beste bategaz ihes eginda nindoala, helmugarako bost kilometroren faltan atzean geratu nintzen, gorputzaldi txarrak eraginda. Hurrengo egunean Gorlan korritu nuen euripean, eta askoz sasoikoago aurkitu nintzen.

CENTRAL FORESTAL
42 Urte Euskal Basoen Zerbitzura
Smurfit Kappa Nervión
Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!
Jasangarritasuna bermatzen
PEFC FSC
ziurtagirien bitartez

Egoera gaitzetan “hazi” egiten da aurten Tabirako

Emakumeen talde nagusiak iaz negargarri hasi zuen denboradia; aurten hiru partidatik hiru garaipen daramatza, eta lidertzan dago

Talde osoaren ekarpena garrantzitsua izan dela azpimarratu du Alberto Molinak. J.Fernandez

Tabirako Baqué emakumeen talde nagusiak ezin hobeto hasi du denboraldia. Egia da orain arte mailako talderik ahulenetarikoen kontra jokatu duela, baina hirutik hiru garaipen lortzea ez da kasualitatea. Iaz antzeko taldeen kontra galdu egiten zuen; lehenengo hamar partidetatik bederatzi galdu zituzten. Aurten, oraingoz, jokatutako dena irabazita, lidertza partekatzen dute Caja Vital, Bera Bera eta Atletico San Sebastian indartsuekin.

Hasiera on horrek taldean zein zaleen artean “ilusioa piztu” duela onartu du Alberto Molina entrenatzaileak. Bera ere gustura dago Tabirako Baquéren errendimenduagaz: “Iaz baino talde hobea dugu, baina animoari dagokionez ere hobeto gaude. Taldea batuta dago, talde osoa, gehien jokatzen dutenak zein gutxien jokatzen dutenak”. Horren adibide da joan zen astean Nafarroan UPNAren kontra lortutako garaipena: “Partida osoan aurretik joan ondoren, hirugarren laurdenean harrapatu egin gintuzten. Iaz, egoera berean behera egingo genuen, baina aurten unerik txarrenetan hazi egiten gara, eta berriz ihes egin genuen. Denok bat izan ginen, aulkian zeudenak izan ziren taldea uneoro animatu zuten lehenengoak”.

> A. Molina: “Aurten taldea batuta dago; aulkikoak dira animoak ematen lehenengoak”

Une gozoak ez du betirako iraungo. Molinak argi du mailako talderik indartsuenen kontra egiteko gutxi dutela, baina bitartean garaipenak pilatzen joateko asmoa dute. Hurrengo erronka Azpeitiako Zurt Taberna taldea etxean hartzea izango da: “Irabazteko partida dugu”. ■ J.D.

Adituarentxokoa

Kepa Arroitajauregi
•Pilota teknikaria

Izar handiena Durangon

Nire lehen kazetari lanak *Eraz* astekarian egin nituen, bertoko kirol ekintzen edo bertoko kirolarien ibilerak kontatzen. Aspaldiko kontuak! Orain berriz bueltan. Beste zenbait tokitan nire kazetari grina apurrak asetzen ditudan arren, pozik hartu dut oraingo *Anboto*ren gonbita.

Nire lehen lerroak Zesta-puntari eskaini nahi eta behar dizkiot, gaur egun denontzat jokamolde nagusi eta ezagunena den esku pilota zokoratuz. Zergatik? Zapatuan Durangoko frontoian izan genuelako jokamoldeak sekula eman duen puntistarik handienetakoa: Iñaki Goikoetxea. Orain 31 urte Zumaian jaioak eta dagoeneko Miamin etxean baino urte gehiago pasatutakoak –16 urtegaz gurutzatu zuen itsaso zabala– bere zortzigarren banan-banango txapela soineratu zuen, Egiguren II.a menderatuta.

Faborito nagusia izanagatik, hori beti demostratu beharra izaten da, eta zumaiarrak fin betetzen du beti zaleak eskatutakoa. Zapatuan pilotalekuak itxura bikaina –harmailak beteta– zuen, eta Goikoetxeak ez zuen huts egin. Parean aurkari gogorra izanagatik, txikitu egin zuen 9-9tik aurrera. Jo inork baino gehiago egiten du, tantoa bukatu edonork bestean eta ibili…1’95m eta 95 kiloko atleta dirudi. Handitasun horrek emaniko txapela soinean, beste bat gehiago da, handiena izanagatik xumeena.

Bukatzeko, eskura bistadizo bat; lau t ‘ erdian pronostikoak bete dira. Retegi Bi, Olaizola II.a, Bengoetxea VI.a eta Xala final-laurdenetara. Kanporatuen artean, lan txukuna eginagatik, Pablo Berasaluze. Okerrago aritu zen bere aholkularia.

Lan duina osatu dute Bidezabalgo kadeteek

Estatu mailako onenekin lehiatu dira

Emakumeen kadete mailan Espainiako Kluben Arteko Txapelketan lehiatu zen Bidezabal, joan zen asteburuan, Valladoliden. Zortzigarren geratu arren, gustura bueltatu dira gaztetxoak maila ona eskaini dutelako. Miren de Regil lehenengo geratu zen pertika jauzian. Garazi Lekunberri bigarren sailkatu zen 3.000 metroetan, eta Uxue Escribano eta Leire Gorritxategi hirugarren luzera jauzian eta jabalina jaurtiketan. ■ J.D.

Bidezabalgo gazteak, Valladoliden, joan zen asteburuan.

Mutrikura joan da txapela San Fausto zesta txapelketan

Beitia eta Gotzon mutrikuarrek irabazi dute XXVIII. San Fausto Zesta-punta Txapelketa. Final orekatuan 30-25 menderatu zituzten Aizpurua anaiak. Gotzonek agindu egin zuen atzean, eta Beitiak ederto aprobetxatu zituen aurrean sortutako aukerak. Hamarnako berdinketatik aurrera, beti aurretik joan ziren markagailuan (14-10, 20-15, 29-22). Azken txanpan gogoz ahalegindu ziren Aizpuruak anaiak, baina aurkariak gehiago izan ziren.

Hirugarren eta laugarren posturako partidan, Noaingo Vidal eta Lakidainek osatutako bikoteak 30-22 menderatu zituen Gernikako Bidaburu eta Onaindia. Vidal izan zen protagonista nagusi; oso inspirituta ibili zen aurreko koadroetan. ■ J.D.

Bederatzigarren txapela Goikoetxearentzat

Egiguren menderatu zuen, Durangon, zesta txapelketako buruz buruko finalean

Iñaki Osa Goikoetxearen izenabizenak hizki lodiz zigilatuta geratuko dira zestaren historian. Zumaiarrak bere bederatzigarren buruz buruko txapela (zortzi ofizial eta bestea Master Jai-k antolatutakoa) jantzi zuen joan zen asteburuan, Mikel Egiguren 30-17 menderatuta. Iaz ere Egiguren izan zen bigarren.

Dena dela, emaitzak ez du Durangoko pilotalekuan ikusitakoa islatzen. Partidaren lehenengo erdian Egigurenek lanak eman zizkion txapeldunari (5-6 / 9-9). Bederatzinakoa hautsita, Goikoetxeak zortzi tanto egin zituen segidan, eta finala ia erabakita utzi zuen. ■ J.D.

> Egigurenek partida hasieran lanak eman zizkion Goikoetxeari

Goikoetxeak buruz buruko errege dela erakutsi zuen.

Abadiño igoeraren bila, indarrak ondo orekatuta

Abadiñok gaztetasuna esperientziagaz orekatu du; gainera, iaz baino talde zabalagoa osatu du liga amaierara sasoian heltzeko

Asteburuan oraindino puntu barik dagoen Mungiaren kontra jokatuko dute. Kepa Aginako

Iaz denboraldi txukuna osatu zuen Abadiñok bigarren erregionalean, eta azkeneko zazpi jardunaldietara arte goian ibili ziren. Faktore bik eragin zuten azken uneko errendimendua apalagoa izatea. Batetik, taldea urria zen, eta jokalariak "apur bat erreta" heldu ziren azken txanpara, Oier Gonzalez entrenatzailearen esanetan. Bestetik, talde gaztea ere bazen, eta esperientzia falta zitzaion. Akatsak identifikatuta, fitxaketak bide horretatik burutu dituzte eta, oraingoz, badirudi asmatu dutela, hiru garaipenekin hasi dute-eta denboraldia.

> Lehen lehian deialditik kanpora geratutakoak titular ziren hurrengoan

> "Azken unera arte goiko postuen borrokan ibili gura dugu aurten"

Aurten 24 jokalarik osatzen dute Abadiño futbol taldea, eta horrek lesioen aurrean irtenbideak ematen dizkio entrenatzaileari: "Postu bakoitzean hainbat aukera ditugu", dio Gonzalezek. Datu adierazgarri bat: lehenengo jardunaldian deialditik kanpora geratu ziren hainbat jokalarik titular jokatu zuten hurrengoan.

Oraingoz Lekeitio (0-2), Lezama (1-0) eta Itugarpe (2-4) menderatu dituzte, eta lider daude Berango eta Zamudiogaz batera. Liga hasi besterik ez da egin, baina Gonzalezek helburuak argi ditu: "Iaz azkeneko txanpara arte goian mantendu baginen, aurten igoerako postuen borrokan ibili gura dugu".

Asteburuan Mungia azken sailkatua hartuko dute etxean. Teorian irabazi beharreko neurketa da, mungiarrek ez dutelako punturik, baina Gonzalez ez da fidatzen: "Maila parekatua da, eta irabazteko ehunik ehunean jokatu beharko dugu".

> Aurten talde zabalagoa dute, eta 24 jokalarik osatzen dute taldea

Ezkurdik hasiera ona

Durangoko Ezkurdi futbol taldeak ere Abadiñoren pareko hasiera izan du hirugarren erregionalean. Hirutik hiru garaipen; Amorebieta eta Otxarkoagaren kontrakoak bost gol sartuta irabazi ditu, eta Ermua B 2-0 menderatu zuten. ■ J.Derteano

Cafés Baquétik kanpora geratu da Calleja zaldibartarra

Calleja zaldibartar gaztea XXVI. Cafés Baqué pilota txapelketatik kanpora geratu da. Eguazten arratsaldean, Abadiñoko pilotalekuan jokatutako jardunaldian, 11-18 galdu zuen Prado errioxarraren aurka. Kadete mailan Larrañagak eta gazteetan Garcia errioxarrak eta Ortiz mungiarrak ere aurrera egin zuten.

> Prado errioxarrak 18-11 menderatu zuen Abadiñon

Hurrengo eguzteneko jardunaldia Atxondoko pilotalekuan jokatuko dute, 19:00etatik aurrera. Kadeteetan Garcia-Garaio eta Iribarria-Gomez partidak jokatuko dituzte; gazteetan Atutxa-Ziarrusta eta Atutxa-Sanchez lehiak. ■ J.D.

Webgunea eratu dute kirola eta diabeteari buruz

Jon Carro 24 orduan bizikletan ibili zen joan zen hilean, diabetea izan arren kirola normaltasunez egin daitekeela erakusteko. Orain mezu horren zabalkundean urrats berri bat eman eta webgunea sortu du: *www.dt1team.org*.

Bertan, Carrok orain arte egindako erronken gaineko informazioaz gainera, DT1 klaseko diabetearen gaineko informazioa irakurri daiteke. Atal berean Kurt Baumanen kasua ere aipatzen du. Korrikalari horrek ere diabetea du, eta hile hauetan Estatu Batuetako estatu bakoitzean maratoi bana egiten ari da. Oraingoz 31 maratoi daramatza eta aurrera darrai.

Bestalde, asteon jakinarazi dutenez, DT1 Team taldeak duatloilari berri bat izango du 2012rako; Imanol Navarro batu zaie taldera denboraldi berrirako. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Elorrio - Ugeraga
Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

GOREN MAILA

Berriz - Padura
Domekan, 11:30ean, Berrizburun

Iurretako - Zaldua
Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain

BIGARREN ERREGIONALA

Abadiño - Mungia B
Zapatuan, 17:00etan, Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi - Elorrio B
Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan

Extremeño - Ermua B
Zapatuan, 17:30ean, Tabiran

Zaldua B - Berriz B
Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Elorrioko Buskantza - Egintza
Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

EUSKAL LIGA

Sasikoa Durango - Berrio-Otxoa Ortziri
Zapatuan, 19:30ean, Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Dantxari - Elorrioko B
Zapatuan, 17:00etan, Lanbide Heziketako Institutuan

Abadiñoko Gaztetxie - Bermeo
Zapatuan, 15:10ean, Elorrioko udal kiroldegian

EMAKUMEEN LIGA

Sasikoa - Jado Erandio
Zapatuan, 15:45ean, Landako kiroldegian

SASKIBALOIA

LEHENENGO MAILA (gizonak)

Tabirako Baqué - Biok Zerbitzuak
Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

LEHENENGO MAILA (emakumeak)

Tabirako Baqué - Zurt Taberna
Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

PILOTA

OLAZAR TXAPELKETA

Lau t'erdian:
Mendinueta - Jauregi
Binaka:
- Elezkano I - Gorritxategi / Garralda - Aldape
Urriak 27, eguena, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

Iurretako eta Zalduaren arteko derbia bihar

Larrakozelain etxetik kanporako lehenengo garaipena lortu gura du Zaldibarko taldeak

Futbolean hainbat derbi jokatuko da asteburuan. Goren mailan nor baino nor gehiago ariko dira Iurretako eta Zaldua. Jon Gurutz Vázquezen mutilek garaipen bigaz hasi zuten denboraldia, baina azkeneko hiruretan puntu bakarra lortu dute. Zaldibarko taldeak, berriz, oraindino ez du irabazi etxetik kanpora. Orain arteko garaipen bakarra etxean lortu du, Moraza 2-0 menderatuta; ondorioz, puntu bakarrera dituzte jaitsiera postuak. Hain zuzen ere, Berriz postu deseroso horietan dago, lau puntu bakarrik batu dituzte-eta oraingoz.

> Ezkurdi-Elorrio B eta Zaldua B-Berriz B derbiak ere jokatuko dituzte asteburuan

Hirugarren erregionala

Beste derbi bi jokatuko dituzte hirugarren erregionalean. Ezkurdi liderrak Elorrio B hartuko du Arripausuetan. Ezkurdik oraindino ez du golik jaso. Elorrio, aldiz, goian kokatu daiteke irabazita.

Zaldua B eta Berriz Bren artekoa ere hartuko du Solobarriak. Biak ala biak sailkapenaren erdialdean dabiltza. ■ J.D.

EDERTASUN GIDA

ESTETIKA ZENTROAK

ILEAPAINDEGIAK

- **Nerea Mallabiabarrena**
- **Nerea masaje eta estetika zentroa**

Erlaxazioa lortzeko

Udazkenean ondo sartuta gaudela dagoeneko, zer eskaintza daukazue zuen zentroan?

Uda eta oporretako lasaitasunaren ondoren, ikasturte hasieran jasaten dugun erritmo-aldaketa handia izan ohi da, estresa eta antsietatea agertzen direlarik. Ayurbeda masaje indiarren promozio bat eskaintzen dugu hemen, aurpegiko larruazaleko garbiketa bat oparituz. Masajeak energiak orekatzea du helburu, baita zirkulazioa hobetzea ere.

Zelan egiten dituzue masaje horiek? Jendeak eskatu egiten ditu?

Ayurbeda masajeak argia amatatuta, kandelekin, musika lasaiagaz... ematen ditugu, helburua erlaxazioa lortzea da-eta. Orokorrean, masaje hau oparia egiteko erabiltzen da. Ondoren, jendeari gustatu egin ohi zaio eta errepikatu egiten du; irailean horrelako hainbat kasu izan dugu. Masaje honi eskerrak lortu dezakezun erlaxazio puntua oso gaitza da bakarrik lortzea. Sentsazioak bi-hiru egun irauten dizu. Ordu eta erdiko masaje saioa izaten da. Aurpegiko larruazaleko garbiketak beste ordubete irauten du.

Zertan oinarritzen da aurpegiko garbiketa hori?

Gizonezkoak ere geroago eta gehiago etortzen dira tratamendu hauek egiten. Negua datorrela-eta, azala lehortzeari aurre egiteko erabili dezakegu. Kosmetiko-geruza aurpegian, besoetan eta sorbaldetan emateaz gainera, oinetan ere masaje bat ematen dugu olio eta esentzia erlaxagarri batzuekin, sentsazioa handiagoa izan dadin. Izan ere, oinetan gorputz osoa islatzen da; oinek eragina dute gorputzean.

RENAULT CLIO EXPRESSION

dCi 70zp. 2010 urtea.

9.900€

RENAULT OCASIÓN

ZUK DENA NAHI DUZULAKO.

PSP transferentzi gastuak barne. 11/10/31-erarte edo izakinen amaierararte baliozko eskaintza. Ikustarazitako eta eskainitako bertsioak desberdinak izan daitezke.

RENAULT

GAURSA AUTOAK

ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO. www.gaursaautoak.com

anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Etxebizitza ia berria salgai. 4 urte. 2 logela, 2 komun, sukaldea (eskegitokia), balkoia, garajea eta trastelekua. Tel.: 615-00 72 16

Atxondo. 75 m2. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, balkoia. Oso eguzkitsua. Kanpora ematen du etxe guztiak. Kalefazioa. Berriztatuta eta altzairuz hornitua. 180.000 euro. Tel.: 655-73 74 47.

Atxondo. 82 m2. 3 logela, sukaldea, egongela ederra, komuna. 2 balkoi. Ganbara eta igogailua. Oso eguzkitsua. Kanpora ematen du etxe guztiak. Berriztatuta eta altzairuz hornitua. Tel.: 628-78 78 35

Berriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Eguzkitsua. Egoera ezin hobean. Tel: 647-77 73 92.

Durango. Pisua salgai murueta-torren. 90 m2. Sukaldea eskegitokiarekin, egongela, balkoia, 3 logela, 2 komun. Guztiz berriztua (ateak, leihoak, horma-armairuak...) eta jantzia, eguzkitsua, bista eta kokapen ederra. Ganbara eta garajea. Tel.: 686-13 89 09.

Durango. 98 m2-ko etxebizitza oso eguzkitsua; 3 logela, sukaldea-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular eta baita terraza komunitarioak ere. Altzariz betea, berogailuaren galdara jarri berria, hormako lau armairu, aluminiozko leihoak, ateak eta zorua aldatuta. Garaje eta igerilekuarekin. Tel.: 655-70 46 84.

Durango. 94 m2. Herriko gudarien plazan. 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela ederra, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, etxe eguzkitsua eta bista ederrekoa. Prezioa: 330.000 euro (55 milioi). Tel.: 615-76 08 01.

Durango. Atiko zoragarria Alde Zaharrean. Erabat berriztaturik eta jantzita. Gas instalazioa egin berri. Oso argitsua. Tel.: 659-42 58 90. aotxotorena@yahoo.es

Durango. Atiko zoragarria Alde Zaharrean. Eguzkitsua eta bista ederreko terraza handiarekin. Kalefakzioa eta aire egokitua. Igogailurik ez. Zaharberrituriko eraikina. Tel.: 665-94 46 74

Durango. Hiru urte. Bi logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta 90 m2-ko terraza handia. 28 m2-ko garajea. Tel.: 637-41 64 38

Durango. Sasikoa kalean. 3 logela, komuna eta egongela-jangela handia. 2 balkoi. Kalefakzioa gas naturalarekin. Garajea eta ganbara. Prezio ezin hobea. Tel.: 679-38 23 69

Elorrio. 65 m2. Berria. Buzkantz kalean. 2 logela, komun bat, sukalde-egongela eta ganbara ederra. Igogailua. Kokapen oneko etxe polita eta eguzkitsua. 94-682 12 34.

Elorrio. Babes ofizialeko etxebizitza trukatzeko durangoko kide baten bila nabil. etxea2011@yahoo.es

Elorrio. Estreinatzear dagoen 162 m2-ko terraza duen atikoa (73 m2). 2 logela, egongela bat, sukaldea eta 2 bainugela. Igogailua eta trastelekua. Oso kokapen ona, eguzkitsua eta bista zoragarriekin. Deitu: 615-75 59 85 (goizez) eta 636-22 49 02 (arratsaldez).

Elorrio. Erdialdean kokatua dagoen etxebizitza salgai. 2 logela eta 2 bainugela. Tel.: 634-45 72 01

Elorrio. Etxebizitza berria erdialdean. 2 logela, 2 bainugela, sukalde ekipatua. Igogailua. Trastelekua. Aukera ona. Tel.: 657-79 39 93

Mallabia. Baserria eta 20.000 m2-ko lur zatia, oso egokia mahasti bat jartzeko, salgai. Kokapen ona. 330.000 euro. Tel.: 655-70 26 47 (20:00-22:00 bitartean). Hormigoizko estruktura. Toki oso politean, bista ederrekin.

Otxandio. Apartamentu jantzia salgai. Garaje eta trastelekuarekin. Tel.: 675-71 72 83

Zaldibar. 300 m2-ko baserria berriztuta. 24.000 m2-ko lursaila. Oso eguzkitsua. Negoziagarria. Tel.: 625-70 59 97.

EROSI

Durangaldea. Baserria erosiko nuke, lursail apur batekin. Ez du inporta zer egoeratan dagoen. 250.000 euro (negoziagarri). Tel.: 618-936 214.

ERRENTAN EMAN

Elorrio. Etxea errentan. Tel.: 695-78 27 86.

ERRENTAN HARTU

Durango. Bikote arduratsua alokairuko pisu baten bila Durango edo inguruetan. Tel.: 617-86 00 55

PISUA KONPARTITU

PISU BILA

Durango. Gela baten bila nabil pisu konpartituan. Alemaniako neska bat naiz, 25 urtekoa, eta azarotik durangon lan egingo dut. Durangon edo inguruan pisu bat aurkitu nahi dut konpartitzeko, prezioa 300 euro arte (gastuak barne). sardana@web.de

PISUKIDE BILA

Durangaldea. Pisua konpartitzeko lagun bila nabil (emakumea nahiago). 688-67 86 90

Berriz. Estreinatzeko eta leku paregabean. 619-66 58 57.

Durango. Logela bat alokatzen da komun pribatuarekin Ibaizabal auzunean. Tel.: 652-86 57 80

Durango. Pisukide bila nabil. Tel.: 605-77 03 57.

Durango. Pisua konpartitzeko lagun baten bila nabil. 2 komun, 2 logela, 2 egongela eta sukaldea konpartitzeko. Tel.: 650-73 87 24

LOKALAK

SALDU

Abadiño. Matienan 44 m2-ko txoko berria salgai. Beharrezko baimen guztiekin. Tel.:672-25 80 41

Elorrio. 360 m2-ko pabilioia salgai industrialdean. Tel.: 634-45 72 01

Elorrio. 950 m2-ko pabilioia salgai industrialdean. Tel.: 634-45 72 01

GARAJE/TRASTEROAK

SALDU

Durango. Trastelekua salgai astepe auzunean. 18 m2 eta bi altuera, leihoa eta ate berria. Tel.: 665-70 75 35.

Durango. Itxitako garajea salgai Tronperri kalean, erdialdean. Tel.: 628-78 78 35

Elorrio. Berrio-otxoa kalean garaje itxia salgai. Tel.: 658-75 92 64.

Elorrio. Garaje itxia salgai erdialdean. Tel.: 660-45 87 56.

ERRENTAN EMAN

Durango. Garaje itxia San Ignazion. Tel.: 94-681 25 10.

Durango. Montebideon 26 m2-ko garaje itxia errentan. Tel.: 656-76 76 06.

Durango. Antso estegizen garajea alokagai. 690-18 91 68

Durango. Garaje partzela alokagai alluitzen. 669-63 03 12

Teknologia

AUDIOA/BIDEOA/ARGAZKILARITZA

SALDU

Autorako MP3 irratia salgai. CD/MP3/WMA Pioneer deh4700mpb. Erabili gabea. Deitu: 636-27 15 08.

EROSI

Cannon 100d kameraren kargadorea. Cannon 100d argazki kamera bat daukat, eta kargadorea galdu dut. tximai@hotmail.com -era.

GAINERAKOAK

EMAN

Bidali zure ordenagailua boliviara. Hondatuta, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta Kainaberaren bitartez bialduko dugu 2. mailako eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

Lana/negozioak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durangaldea. 20 urteko neska asteburuetan, edozein ordutegitan, lan egiteko prest. Tel.: 646-82 26 28.

Durango. Neska gazte euskaldunak bere burua eskainten du tabernari lanak egiteko, astean zehar goiz zein arratsalde, eta baita asteburuetan ere. Experientziaduna. Interesatuak deitu: 615-71 62 32.

PERTSONAK ZAINDU

Durangaldea. Neska euskalduna, fisioterapian diplomatua. Etxez etxez errehabilitazio traumatologikoa, neurologikoa, drenaje linfatikoa, masaiak, ... egiten ditut, pertsona bakoitzari egokituta. Ordutegi malgua. 635 74 15 15

Durangaldea. Neska gazte euskalduna umeak zaindu edota etxeko lanak egiteko prest. Goiz eta arratsaldez. Esperientzia. Gabinete pedagogikoan egon naiz laguntzen. Tel.: 648-13 13 27

Durangaldea. Neska gazte eta euskalduna umeak zaintzeko prest . Goi mailako haur hezkuntzako titulua. Edozein galdera egiteko: 615-00 59 64

Durango. 21 urteko neska euskalduna umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, klase partikularrak zein ingeleseko klaseak emateko prest. Magisteritza ikasten. Umeekin esperientzia zabala irakaskuntzan zein kirol guneetan. Tel.: 660252793. a_aldekoa_90@hotmail.com.

Durango. Lan bila etxeak garbitzeko edo umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 696-75 35 30

Durango. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila, interna edo externa modura, orduka zein gauez. Esperientzia asko. Erreferentziak. 603-95 41 94

Durango. Psikologian lizentziatua. Durangoko neska euskalduna umeak orduka zaintzeko prest, goizetan zein arratsaldetan. Tel.: 646-53 83 90

Durango. Andre euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 659-08 81 85

Durango. Andre euskalduna pertsona nagusiak, gaixoak, ezinduak... zaintzeko prest. Urte askoko esperientzia. Tel.: 699-74 57 23 (ines)

Durango. Neska euskalduna umeak zaintzeko, etxea garbitzeko zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Kotxearekin. Tel.: 664-14 69 04.

Durango. Emakume arduratsua orduka eta externa bezala lan egiteko prest: umeak zein pertsona nagusiak zaindu, etxeak, tabernak garbitu... Tel.: 670-67 46 41 (Juana).

Durango. Neska gaztea, etxeko lanak egiteko, umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Venezuelako neska bat naiz baina euskal herrian guztiz integratua. Esperientzia handia. Tel.: 667-07 45 34.

Durango. Emakume arduratsua pertsona nagusien edo umeen zaintzarako eta garbiketarako lan bila. Esperientziarekin. Tel.: 697-12 64 38

Durango. Umeen edo pertsona nagusien zainketarako zein garbiketa lanetarako lan bila. Jardunaldi osoan, erdian edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 638-43 79 01

Durango. Emakume arduratsua, esperientzia eta erreferentzia onekin pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Interna edo externa modura. Orduka, jardunaldi erdi edo osoan, asteburuetan edo gauez. Paperekin. Tel.: 628-00 22 17

Durango. Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila, astelehenetik ostiralera, 13:00etatik 20:00etara. Erreferentzia onak. Tel.: 650-61 01 94

Durango. Umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lan bila. Esperientzia daukat. Orduka, jardunaldi osoan edo erdian. Tel.: 616-30 04 15.

Durango. Neska gazte euskalduna haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, goizez zein arratsaldez, haurhezkuntzako ikasketak burutua. Esperientziaduna. Interesatuak deitu: 615-71 62 32.

Durango. Persona nagusien, umeen edo garbiketa lanen lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona arduratsua, esperientzia eta erreferentziekin. Tel.: 646-10 45 52

Durango. Umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketarako lan bila. Externa, interna edo orduka. Esperientzia. Erreferentziak. Tel.: 697-12 64 38

Durango. Neska euskalduna umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. 3 urteko esperientzia umeekin eta urte bateko pertsona nagusiekin. Tel.: 692-70 93 84.

Durango. Umeak zaindu zein etxea garbitzeko prest dagoen neska. Tel.: 619-20 11 19.

Elorrio. Haur hezkuntzako ikaslea arratsaldez umeak zaintzeko edo tabernan lan egiteko prest. 14:30etik aurrera. Kotxea. Tel.: 665-72 52 62.

Elorrio. Haur hezkuntzako irakaslea. Durangon, Elorrion, Matienan nahiz Abadiñon umeak zaintzeko prest. Nahi den ordutik 13:00etara, eta 16:00etatik nahi den ordura arte. Tel.: 666-19 75 68

IRAKASKUNTZA

Durangaldea. Psikologo euskalduna ikasketarako arazoetan laguntzeko prest. Ikasketa teknikak era eskaintzen dira. Tel.: 679-38 23 69

Durango. Ingeniaritzako ikaslea LH, DBH eta batxilergoko ikasleei klase partikularrak emateko prest. 666-20 78 45

Durango. Neska gazte euskalduna klase partikularrak emateko prest. Magisteritzan diplomatua eta lanean esperientzia. 678-86 89 42 (amaia)

Durango. Informatika goi mailako zikloko irakaslea, oinarrizko ezagutzak, ofimatika, argazki programak, blogak nola sortu, ... irakasteko eskola partikularrak emateko prest. Presentziala edo online. Dbh 4. mailara artekoei errefortzu eskolak emateko prest. infordurango@gmail.com

